



**Kalitatezko
haragiaren bila**



h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 943 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA
ETA ORAIN **24** HILABETETAN ORDAINTEZKO AUKERA

ZURE AHOAREN OSASUNA GOIERRIN BERTAN ZAINDU



Iñauti
Hortz Klinika

- ✕ Odontologia orokorra haur eta helduentzat
- ✕ Radiografia panoramikoa eta zefalometrikoa
- ✕ Protesia

Estibalitz Juarez Aldanondo
Kolegiatu zenbakia: 602

☎ 943 88 46 28

Joan Iturralde 3 Behea

BEASAIN



ALDA
HORTZ-KLINIKA

M. Rosa Alda Arruabarrena
Arantxa Alda Arruabarrena

Odontologia orokorra:
haur eta helduentzat
Ortodontzia, ortopedia

Urdaneta, 54 - 1.B ☎ 943 88 71 16

ORDIZIA

ARRIZUBIETA BALERDI
HORTZ-KLINIKA

M. Rosario Arrizubieta
Kolegiatu zenbakia: 347

M. Luisa Arrizubieta
Kolegiatu zenbakia: 566

ZAINDU ZURE
OSASUNA
AHOTIK HASITA

☎ 943 88 92 45

J. M. Barandiaran plaza, 5 **ORDIZIA**

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Jon Ordoñez, Gabino Murua,
Eduardo Albizu, Agurtzane Biku-
ña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxa-
ga, Zorion Insausti.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.500 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Igartza saria: idazle berrientzat
literatur sorkuntza beka**

Beasaingo Udalak eta CA-
Fek, Elkarlanean argitaletxe-
aren laguntzarekin, II. Igar-
tza Literatur Sorkuntza beka
antolatu dute, euskal kultura
zabaltzeko eta idazle gazteen
lanari laguntza emateko as-
moz. Bekak 500.000 pezeta-
ko diru-laguntza izango du.

Liburua egiteko proiektua
sarituko da beka honekin.
Eleberri edo ipuin-bilduma
izan beharko du. Egile ber-
rientzat bideratua dela kon-
tuan hartuta, bi baldintza
hauek bete beharko dira: la-
na entregatzean 35 urte bete
gabe izatea eta aurretik lan
argitaraturik izatekotan, ba-
karka bi liburu baino gehia-
go argitaratuak ez izatea.

Partehartzaile bakoitzak,
hiru aldakitan eta bere bene-
tako izena agerian jarri gabe,
ondorengo agiriak aurkeztu
behar ditu bere proiektuare-
kin batera: landu nahi duen

kontakizunaren azalpena, 2-
4 orri bitarteko luzerakoa,
egoki iritzitako ezaugarriak
zehaztuz, hala nola, argu-
mentua, egitura, luzera, esti-
loa, etab.; idazlanaren era-
kusgarria, 15-20 orrialde bi-
tartekoa, ez nahitaez konta-
kizunaren hasierakoa, baina
bai zati bakarra osatzen due-
na; eta gutunazal itxia, kan-
poko aldean idazlanaren
izenburua izango duena eta
barruan egilearen izen-abize-
nak, helbidea, telefonoa eta
nortasun agiriaren fotokopia.

Proiektuak ekainaren 30a
baino lehen bidali behar dira
Beasaingo Udaletxeko Eus-
kara Zerbitzura. Epaimahaia
Aingeru Epaltzak, Joan Mari
Irigoiene eta Xabier Mendi-
guren Elizegik osatuko dute.
Informazio gehiago nahi iza-
nez gero, dei Beasaingo Eus-
kara Zerbitzura (943-
805051).

BOTA BERTSOA



Mikel Aranburu

Beasaingo obrak

*Doinua: Hamarreko
nagusiko edozein.*

Obrak direla ta ez direla
horrenbeste tira-bira
kotxezaleen haserretoki
jubilatun ikusmira
pasatzeik ere ez da izango
ia hemendik gutxira
eta gainea jartzen bagera
kamino denei begira
etxe askoko txerriotikiak
garbiago egongo dira.

Jende gehiena moskeaturik
kanpoko eta bertako
hamaika koska hogeit bat zulo
jendearen kalterako
ta Euskaltelen hamabost tapa
nik ez dakit zertarako
bere logika ba omen dauka
eta ixildu beharko
alkatetzako elezioak
aurten omen direlako.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Lazkaoko Udalari:

GOIERRITARRA aldizkari-ko azken alean, Lazkaoko kultur taldei buruz irakurri nuen artikulo bat zegoen. Bertan, kultur taldeek azken urteetan egindako lana aipatzen zen: txarangena, txistulariena, dantza taldeena...

Musika kultura ote da? Dirudienez, txaranga, txistulariak eta abesbatza bai. Hala eta guztiz, hortik aurrera gauza batzuk ere egon daitezke. Adibide gisa, Lazkaoko gazte batzuk egiten dugun Rock & Roll-a. Nahiz eta gehienetan begi txarrez begiratzen gaituzten, gu ere herri honetakoak gara eta beraz bertan bizitzeko eta pentsatzeko dauden era ezberdinen artean ere sartzen gara.

Artikuluan, kultur taldeen lana aipatzen zen. Jakin dezatela alpertzat hartzen gaituzten horiek, Lazkaoko Fist-Fucking eta Los Rockinson taldeek lehengo urtean, berrogei kontzertutik gora jo genituela Euskal Herri osoan. Honez gain bi maketa (jadanik salgai), Misfits talde amerikarraren errekopilazio batean eta Madrilgo Rumble disketxearekin beste errekopilazio batean grabaketak eginak ditugula. Honez gain

sortu berri den Zaunka Record's zigiluarekin bost abestiko singel bat ere grabatu dugu. Aipatutako azken hiru grabaketa hauek laster irten-go dira merkatura.

Lazkaoko kultur taldeei egindako lanaren ordainetan, diru bat eskaintzen zaie laguntza gisa eta oso zuzena iruditzen zaigu jokabide hau. Bestalde, lokal bana ere badute denek. Gure egoera ordea nahiko tamalgarria da:

Gehienak ikasleak izateak dakartzan baldintzekin, hor ibiltzen gara aurrera eta atzera gehienetan dirua galduz. Gainera alokairuan hartutako lokalak bakarrik dauzkagu aukeran eta dirua biltzea hila-bete bukaeran oso zaila egiten zaigu. Lazkaon beste edozein kultur aktibitate egiten duten talde guztiek beren lokala dute eta beste adibide baten gisa, txakur galduek ere badute non egona. Guk ez ditugu txakurrak gutxies-ten, alderantziz, pertsona asko baino altuago jarriko genituzte, baina ea noiz demontre ematen diguten Lazkaoko Rock & Roll taldeei dagokigun lokala.

*Los Rockinson eta
Fist Fucking taldeak
(Lazkao)*

Goieki eta Goierrigintza

Hiru edo lau urte izango dira, jadanik, Goierriko mendi ibilbide batzuk bildu eta liburu batean argitaratzeko lehen lanak hasi zirela. Politzen asmoa eta gogotik heldu genion lanari.

97ko udazkenean, azkenik, esku artean eduki ahal izan genuen zoriarekin liburua: "Goierri Mendiz Mendi". Itxura ederra, gauza interesgarri franko..., baina akatsak ere bai tartean eta ez ezinbestez gertatzen diren horietakoak, ez. Aurrez eza-guna zuten lanaren arduradunek, liburuko toponimiaren trataera eskasa zela (euskara-rena berarena ere bai pasarte gehiegitan) eta eskaini ere eskaini zitzairen, ahal zen neurrian hobetzeko laguntza; utzikieraren utzikieriaz ez zuten ezer egin nahi izan, ordea.

Hori bai, aurkezpenekoan, hitz ederrak Goiekiko ordezkariak, "berriz argitaratzen bazen, kasu egingo zitzaizela horrelakoei" eta antzekoak; zurikeriak, gero ikusi denez.

Argitaratu da berriz ere liburua eta, orain, kritika jendaurrean egin beharrekoa da. Okerrak zuzentzeko laguntza

eskaini zuenari zerbait egin ote zitekeen galdetzeko gauza ere ez da izan Goieki; lehen argitarapeneko hainbat inprimategi akats nabarmen ere, bere horretan datoz, atzera, liburu berrian.

Goiekiko arduradunek us-te dute, nonbait, Goierrigintza egunkarian eta kamaren aurrean azaldu eta "Goierri ondo doa; hara zein liburu dotorea; zatzote" esatea besterik ez dela; eta ikuspegi horrekin harro daude, horrela ikusi ditut nik behintzat.

Baina nik, goierritarra naizen aldetik, uste dut geure burua aberasteko, aurrena, daukagun hizkuntza (eta bes-telako) ondarea zaindu, landu eta gaurkotu behar dugula. Eta Goiekik ez du paso egin behar horretan.

*Antonio Berasategi
(Idiazabal)*

Haur - eskola

☎ 943 88 39 26

SEASKA

Ikasleen etorbidea, 1
BEASAIN



- ✓ 0-3 zikloa bere osotasunean eskeintzen duen zentro bakarra
- ✓ 1a 20 urteko esperientzia
- ✓ Giro euskalduna (D eredua)
- ✓ Bertako sukaldean prestatutako janariak
- ✓ 3 urtetik aurrerakoentzat zerbitzu irekia: goiz, eguerdi eta arratsaldeko zerbitzuak; eta eskola-ikastolako oporraldietan aktibitate eta irteera bereziak (udalekuak)
- ✓ Matrikula epea irekita dago



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

TXANDAKA

Butanoa

Butano banatzaileen grebak egun askotxo bete ditu dagoe-neko, baina hala ere, ez da sortu berebiziko asaldadurarik gizartean. Egunkarietako 'zuzendari gutunak' sailetan ez dira pilatzen butano erosle suminduen kezak; igogailuetako elkarrizketa behartuetan inork gutxi esaten du asperenka ez dagoela horrelako lanuzte luze baterako eskubiderik; ertzainek ez dituzte butano hiltegiak babestu behar izan ate eta leihoak hautsita asaltatu nahi zituzten jende olde-tik; inork ez du errua gobernuarena dela esan. Izan ere, bazterreko kontua bihurtu zaigu butanoarena: produktu marginala da. Gaur egun, jubilatuek, pobreek eta alokairu merkeko etxeetako maizterrek baino ez omen dute butanoa erabiltzen. Hala diote. Gainerakoak etxe barru-barruraino heltzen den gasarekin liluratuta daude: "con el gas natural tu vida cambiara, lara, la".

Eta guzti horrekin batera, paisaia aldatzen doa. Butanoak baduelako bere paisaia: herrietako langileen auzaguneetan; hiri kanpoaldeetako kale utzietan. Butano kolore laranjek —baita geranio gogorrek ere— apaintzen dituzten pobreen etxe grisetako balkoi estuak. Orkidea eta arbola ñaño-ek, berriz, luxuzko duplexetako terrazak. Butanoa, geranioak eta lehortzeko eskegitako arropak pobreen balkoietan ikusgai. Dirudunen terrazetan, arbola exotiko-aseptikozko hesiak dena estaltzen. Beharbada, pobreek ezer gutxi dutelako ezkuta-tzeko.

Idurre Eskisabel Larrañaga



Zaintzen al duzu zure hortzen osasuna?

Xabier Urdangarin

35 urte, langilea
ataundarra

Egunean 3 aldiz garbitzen ditut hortzak, medikuak emandako hortzetarako pasta eta likido berezi batekin. Ur asko edatea ere ona da hortzentzat. Txotxak oso txarrak dira. 2 urtean behin errebisioa egiten dut.



Felipe Agirre

33 urte, langilea
beasaindarra

Oso gutxi, oso larri nagoenean bakarrik. Hori bai, urtean behin errebisioa egiten dut.



Izaskun Urrestarazu

25 urte, ikaslea
ordiziarra

Zaindu bai, baina agian gutxiegi. Dentistarengana mina daukadanean bakarrik joaten naiz.



PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

**Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak**

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

Oriamendi, 3 - 2. ezk.

BEASAIN

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN



✓ Aholkularitza
juridikoa

✓ Entrepresa
zerbitzuak

✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92

Kale Nagusia, 2

BEASAIN



Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

● Pintxo hotz
eta beroak

● Ogltartekoak

ZINEA

GOIENIZ:

Otsailak 25, 'Rompiendo las olas', 21:00etan, Usurbe antzokian. Ikus koadroa.

ORDIZIA:

'La niña de tus ojos', Larunbata 27: 19:30 - 22:15; igandea 28: 19:30 - 22:15; astelehena 1: 19:30.

'Buddy', Igandea 28: 16:45.

BEASAIN:

'Más fuerte que su destino', Ostirala 26: 22:15; larunbata 27: 19:30 - 22:15; igandea 28: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 1: 19:30 - 22:15.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Martxoak 10, Beasaingo Errail antzerki taldearen 'Hitz egin dezagun sexuaz' antzezlan, Usurbe antzokian, 18:00etan. Sarrera dohainik.

ORDIZIA:

Otsailak 26, 'Lourviers Story', Lourviers taldearen eskutik, Herri Antzokian, 22:15ean. Antzerki garairen barruan.

'La lección de tango'

Sally Potter (B.H.- Arg.- Fran.- Jap., 1997)

Film honetan gauza guztiak Sally Potter britainiarraren aurrekoan, 'Orlando' (1992), baino errazagoak dira. Sallyk, gaztetatik du, zinema eta antzerkiaz gain, musika eta dantzarako interesa. 'La lección de tango'-k etendura bat dakar bere karreraren, 'Orlando'-ren gehiegizko estetizismotik askatasuna bilatzen duen lan bat da. Zuzendari beraren egia filmak kontatzen dizkigun bi istorioekin nahasten da. Bata, egoera eta bere bilakera eta bestea fikziozkoa, Hollywoodeko ekoizle batzuentzat prestatzen ari den gidioarekin batera ados ez dagoen zuzendari baten eta tangoaren mundua hankaz gora jarri nahi duen bitartean zinearekin amets egiten duen dantzari gazte baten arteko amodioa.

Martxoak 9, Ordiziako Antzerki taldearen bi antzezlan: 'Ultimar detalles', 'De bureo' eta 'Erotic stress', Barrenan, 19:00etan.

ZALDIBIA:

Martxoak 5, 'Romeo eta Julieta' Ordiziako Antzerki Taldearen eskutik, 22:30ean, antzokian.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Martxoak 3, 'Euskal Herriaren bakeratzean komunikabideen eragina' gaiari buruzko hitzaldia, Pedro Ibarra, EHUKo Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko katedradunaren eskutik, La Salleko Batzar aretoan, 20:00etan. Antolatzailea: Topagune eta Elkarriketarako Goierriko Ekimena.

Martxoak 9, Beasaingo lau elkarlangileen edo kooperanteen eskutik Venezuelako eta Nikaraguako egokoraren berri emango da, 17:00etan, Oriamendi kaleko Asmubeko egoitzan.

OLABERRIA:

Martxoak 8, Amaia Vazquezek eskutik 'Komunikazioa familia barruan' hitzaldia, Bikario-etxean, 14:45ean.

Martxoak 9, Mila Aierbe ataundarraren eskutik, 'Planeten eragina horoskopon' gaiari buruzko azalpenak, Bikario-etxean, 21:00etan.

Martxoak 10, Anparo Urkolaren eskutik, 'Etxeko ohizko erremedioak: informazioa, belar motak, aholku praktikoak' hitzaldia, Bikario-etxean, 21:00etan.

Martxoak 11, 'ONGak, bolondres lana' gaiari buruzko mahaingurua, Bikario-etxean, 21:00etan.

ORDIZIA:

Martxoak 10, '40 urtetik aurrera heltzearen plazerra' hitzaldia, EHUKo irakaslearen M. Luz Estebanen eskutik, Barrenan, 18:00etan.

Martxoak 8, 'Laguntasuna: altxorrik handiena' hitzaldia, Bergarako Jubilatuen elkartearen zuzendaria den Tomasa Zabaletaren eskutik, 17:45ean Jubilatuen Elkartean.

SEGURA:

Martxoak 9, Euskal selekzioaren inguruko hitzaldi-solasaldia, Kultur Etxean, 19:30ean.

Martxoak 11, 'Ikastolak eta Euskal Herria' hitzaldia, Kultur Etxean, 19:30ean.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Otsailaren 28ra arte, Jaiber Merkaderraren zeramika erakusketa, Usurbe Antzokian.

Martxoaren 5etik 14ra, Mikel Errazkinen erakusketa Usurbe antzokian.

Martxoaren 27ra arte, Josu Oregi, Migel Cortes, Jose Antonio Abaigar eta Simon Arrigain argazkilarien erakusketa, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Martxoaren 18ra bitartean, Nisa Goibururen pintura

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

© 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ALTZAGA

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

'Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 - 943 16 22 56 ORDIZIA

erakusketa Barrena Kultur etxean.

Martxoaren 4an eta 9an, 'Sormena eta emakume margolariak' erakusketa Barrenan.

OLABERRIA:

Martxoaren 8tik 14ra, Javier Fernandez 'Goierri: bere jendea eta bizitza' argazki erakusketa Bikario-etxean.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Otsailak 28, Larraitx - Beasain.

Martxoak 7, Arrastortze-ko gainera.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943882934.

Otsailak 27-28: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943880152.

Martxoak 6-7: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 943160949.

Ikasi Mukusi: Internet ikastaroa

Martxoaren 6an eta 13an, goizeko 9etatik 1era, Internet ikastaroa izango da Goierri Lanbide Eskolan, Ordiziako AEK, Hitzaro, Euskal Herrian Euskaraz, Bertso Eskola eta Goierriarrak Kultur Elkartek antolaturik, Ikasi-Makusi programaren barruan. Izen ematea Hitzaron, 943-162366 telefonoan egin behar da. 2.000 pe-zeta kostatuko da ikastaroa.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

❑ Bigarren eskuko alpinoko eskiak erosiko nituzke. 21:00etatik aurrera deitu. 943 162381.

❑ Nad eta Sony anplifikadore eta irratia salgai. 943 887313.

❑ Opel Calibra, SS-AJ, kotxea salgai. 119.000 kilometroekin. Egoera onean. 943 883361. Gauzez.

❑ Ford Fiesta salgai, SS-AM. 943 881038. 18:30etik aurrera.

❑ Idazmakina salgai. Kolodo. 943 882047.

❑ Enziklopedia salgai, 9 aleduna. Gaiak: familia eta medizina, belar medizinalak, drogak: ezagutu eta prebenitu. Gaixotasun askoren prebentziorako ezin hobea. 943 80 63 64.

Etxebizitzak:

❑ Pisia salgai Zegamako Txarapen. Berogailu zentralarekin. 943 593478.

❑ Pisia salgai Beasaingo Kale Nagusian. Handia eta berritua. 943 880523. Gauzez deitu.

Lana:

❑ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. 943 883180.

❑ Trikitixa talde batek baxista bat behar du. Pertsona arduratsua. Interesatuak deitu telefono hauetako batera: 943 180408 edo 943 180334 (arratsaldean).

❑ Ikaztegietako herriko ostatu-taberna ustiatzeko lagunen bila dabil bertako Udala. Baldintzak eta gainerakoak elkarren adostasunez finkatzeko jarrera irekia du Udalak. 943 653329.

 **interlang**

International Language Services



Ingles, frantses eta aleman ikastaroak gure eskola eta enpresetan



Haur, gazte eta helduentzako hizkuntz ikastaroak atzerrian, lan praktika, kirol eta bestelako ekintza askorerkin



Itzulpen gintza eta enpresatarako hizkuntz zerbitzu orokorrak



Au-Pair: gestio azkarra eta kontu haundiz aukeratutako familiak



Lan esperientzia atzerrian: Irakasle goa eta begiraleak U.S.A.-n: ostalaritza eta abar

ORDIZIA

Elkano, 8

☎ 943 88 11 37

BEASAIN

JM Iturrioz, 11

☎ 943 16 05 72

DONOSTIA

Kolon, 5

☎ 943 27 81 61

ZUMARRAGA

Iparragirre, 8

☎ 943 72 22 23



Zorion Insaustiren laguntzaz

Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8

☎ 943 88 13 37

ORDIZIA

Hitz egin, irakurri, idatzi, komunikatu...

Euskaraz?

Inoiz
baino
errazago!

Euskaraz trebatzeko
50 orduko ikastaroa

+

Urte beteko

Egunkariako harpidetza

~~50.400 pzta.~~

27.000 pzta.

Egunkaria

Ez galdu aukera hau.
Jar zaitez harremanetan
hurbilen duzun euskaltegiarekin

ERREZETA



Konsuelo Otamendi
Arrese jatetxea
Zaldibia

TXANGURROA

Osagaiak: 2 kilo txangurro 2 lagunentzat, tipula, perrexila, tomate naturala, koñaka, gurina eta ogi birrindua.

Txangurroa ahal dela itsasoko uretan egosi. Ura irakiten hasten denean txangurroa sartu eta 20 minutuan eduku. Hoztean barruko gorputza atera eta txikitu.

Kazola batean tipula jarri egiten. Erdipurdi egindakoan aurrez txikitutako txangurroaren gorputza bota. Kopa txiki bat koñak eta perrexila bota. Txangurroaren gorputza atera ondoren gelditzen den saltsa eta okela, xehatu. Guztia nahastu eta tomate natural piska bat bota. Gatz piska bat ere bai.

Ore guztia maskorrean sartu. Gaineretik ogi birrindua, gurina eta perrexila bota eta labean sartu gainerretzeko edo gratinatzeko.

AHOLKUA



Zorion Insausti
Oreka dietetika zentrua

Gaixotasun hauek itxura ezberdinekin agertzen badira ere, jatorri berdina dute. Hau da, gorputzaren defentsak baju daudela. Hoberena, lehenengo moles- tiak edo hauek agertu baino lehenago neurriak hartzen hastea da. Hainbat sendabelar eta janari hartzea komenigarria da:

Sendabelarrak: ezkaia, propoleoa.

Janariak: laranja, limoia, kiwia, ez- tia.

Gaixotasun hauekin agertzen diren moles- tiak arintzeko erremedioak ere badaude:

Mina: sahatsa.

Eztula: sain-belarra.

Sukarra: intxusa.

Buruko mina: sahatsa.

Jateko gogorik eza: orburua edo al- katxofa.

Belarretan egokiena tantetan ur pis- ka batekin nahastuta hartzea da.

Gripe, katarro eta infekzioak

Egun gutxitako gaixotasuna baldin bada, egokiena gutxi jatea da, batez ere landare janariak eta aholkaturiko jana- riak (laranja,... C bitamina asko dutela- ko), likido asko asko hartu (litro t'erdi, bi litro) jan orduetatik kanpo eta belar tantak (ezkaia eta propoleoa) egunean hiru aldiz hartuta nahikoa da. Gutxi jan behar da, zeren gorputzari digestioak neke bat sortzen dio eta hobe da neke hori ez edukitzea, horrela daukan gai- xotasuna hobeto eta azkarrago sendatu- ko da. Landare janariak, berriz, kome- nigarriak dira, zeren digestioa erraztu egiten dute, toxina gutxi ditu eta bita- mina eta mineral asko.



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Sagardotegia

aulia

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

BIZKARREKO MINAREN
ESKUZO TRATAMENDUA

● LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL R.P.S. 213/97
● ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



Sasieta: 1998ko ekitaldia

Sasieta Mankomunitateak iazko jardunaldiko datuak eman ditu. Hondakinen sorkuntzari dagokionean, 1997ko joerari jarraituz, % 5 igo da. Honek zera esan nahi du: bataz beste, pertsona bakoitzak 373 kilo zabor sortu zituela. Hala ere, 373 kilo horietatik 55 berreskuratu egin ziren.

Bilketa bereiztuaren atalean, beira da biltzen diren materialen artean izarra. Zabor poltsetako 100 kilotatik 73 bildu egiten dira. Paperaren arloan 100 kiloko 45 berreskuratzen dira. Ontzien atalean, berriz, (uztaila ezkerotik Goierriko herri guztiek dute zerbitzu hau) ez da gehikuntza handirik somatu bildutako kantitateetan eta sentsibilizazio kanpainaren beharra ikusten dute Sasietakoek. Berreskuratutako materialei begiratzuz, Europako buruan dauden herrialdeekin konpara gaitezke. Beiraren kasuan gainera, aurreko taldean gaudela ere esan daiteke. Gure inguruko eskualde edo hirien artean ere aurreratuenen artean gaude.

Mankomunitateak emandako datuen arabera, Ordizia, Ormaiztegi, Beasain eta Itsasondo dira herri onenak, berreskuratze portzentaiei dagokienean.



Jose Luis Elorza

Beasaingo PSE-EEko zinegotzia den Jose Luis Elorza Gipuzkoako, Foru Aldundirako hauteskundeetarako PSE-EEko zerrendaburu izateko hautagaia da alderdi barruko hauteskundeetan, Guillermo Etxenike eta Jose Maria Mujikarekin batera.

Otsailaren 27an bukatuko dute hauteskunde kanpaina.

'Txato' Agirre

Orain arte Eusko Jaurlaritzako Kulturako kontseilari izan den 'Txato' Agirre ataundarrak kargua utzi egin du.

Beasaingo

Batzokian sua

Beasaingo EAJren egoitzan, Batzokian, sutea izan zen otsailaren 14ko goizaldean. Itxura denez, zaborre-tan zegoen gaizki itzalitako tabakoaren eraginez sortu zen sua.



Jarrai ETTen aurka

Goierriko Jarrai ETT-en (Aldibaterako Lan enpresak) aurkako dinamika ari da burutzen azken aldian. Goierriko ETT-ko bulego aurretan hainbat bilkura edo konzentrazio egin dituzte, argazkikoa lekuko.

ka ari da burutzen azken aldian. Goierriko ETT-ko bulego aurretan hainbat bilkura edo konzentrazio egin dituzte, argazkikoa lekuko.

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA



- ✱ LEIHOAK, ATE-AK eta abar
- ✱ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

ZALBIDE
SAGARDOEGIA
Arraiak parrilan



© 943 65 21 76 ABALTZISKETA

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA

Ipuin-kontari

Euskal Telebista 'Kontaidazu' saio berezia ari da prestatzen. Pertsona ezagunek ipuinak kontatuko dituzte. Xabier Mendiguren itzul-tzaile eta Kontseiluko presidenteak bere etxean gertatutako pasadizo baten laburpena egingo du. Eta Ataungo Joseina Etxeberriak, Euskadi Gazteko esatariak, San Martin Txikiren ipuina kontatuko du.

Eskolarteko Loinazko San Martin krosa

Otsailaren 14an jokatu zen Beasainen Eskolarteko Loinazko San Martin krosa, Txindoki atletismo taldeak antolaturik. Beasain erdian prestatu zuten ibilbidea. Irabazleak hauek izan ziren: neska alebinetan, Tolosako Uzturpe ikastolako Amaia Jauregi; mutil alebinetan Oñatiko Txantxiku ikastola-

ko Yeray Varela; neska infantiletan Ordiziako Jakintza ikastolako Maite Leturia; mutil infantiletan Beasaingo Loinazpe ikastetxeko Mounir Ziani; neska kadeteetan Hernaniko Langile ikastolako Koro Astiz; mutil kadeteetan Elgoibarko Manuel Perez. Taldekako sailkapenean, infantiletan Ordiziako Jakintza ikastola izan zen lehenengo eta kadeteetan Beasaingo Alkartasuna Lizeoa-Ikastola.

Josune Bereziartu

Kiroletako Kontseilu Gorenak Beasaingo Josune Bereziartu eskalatzailea saritu du. Kirol Merezimenduko atalean brontzezko domina eman diote beasaindarrari.

Beñat Garaialde

Salbatoreko txirrindulari afizionatuak istripu larria izan zuen otsailaren 19an, entrenatzen ari zela.

Korrika

Sagardo eguna

Datorren martxoaren 6an, Sagardo eguna ospatuko du AEK-k Astigarragan eta Hernanin. Bazkarira joan nahi duenak martxoaren 2a baino lehen eman behar du izena AEK-ko euskaltegietan: Beasainen, Kale Nagusia, 5 - 3.enean (943-889340); Ordizian, Santa Ana ikastetxean (943-889174); eta Lazkaon, Elozegi kalea, 16 - 2.enean (943-889340). Autobusak antolatuko dira Goierritik.

8. Txiste idatzien lehiaketa

Goierriko Korrika Batzordeen artean 8. Txiste idatzien lehiaketa antolatu da. Lehiaketa honetan parte hartzeko honako baldintza hauek hartu behar dira kontuan: 16 urte edo gehiago izatea; eta txisteak euskaraz (euskalkian edo batuak) idatziak izatea.

Txisteak aurkezteko azken eguna martxoaren 14a da eta Beasaingo Kale Nagusia 5-3.enera bidali behar dira. Sariak aurreneko 3 txiste onenentzat izango dira, eta Goierriko 3 jatetxe ezagunek emango dituzte sariak: lehenengo saria Olaberriako Castillo jatetxean afaria edo bazkaria bi lagunentzat; bigarren saria, Olaberriako Arrieta jatetxean afaria edo bazkaria bi pertsonentzat; eta hirugarren saria, Legorretako Aulia sagardotegian, afaria edo bazkaria bi lagunentzat.

KONTSULTORIO MEDIKU KIRURGIKOA

25 URTE goierritarrei mediku zerbitzu espezializatu onenak eskaintzen

J.A. Lasa	Kardiologoa	C. Poveda	Anatomia patologiako
J. Alzua	Nerbio eritasunak	R. Lopez	Lan, kirol... istripu
F. Arrue	Barne medikuntza	R. Garate	sorospen zerbitzua
	Liseri aparatoa	M. Ansa	
P. Arrue	Urologia	A. Ubarretxena	Radiologia
B. Aseginolaza	Dermatologoa		Ekografia orokorra
A. L. de Goikoetxea	Reumatologia		Ekografia ginekologikoa
	Medikuntza orokorra		Zain eta giharre ekografia
R. Orus	Medikuntza orokorra		Titi ekografia, etab.
J. Igartua	Otorrinolaringologoa	I. Larruskain	Analisi klinikoak
V. Ormaetxea	Pediatra	J. D. Gisasola	Errehabilitazioa
R. Ayllon	Ginekologoa	A. Perez	Errehabilitazioa
M. Garcia	Ginekologia	L. Azpiroz	A.T.S.
M. Ruibal	Neurologia		Azterketa Medikoak
L. Berdejo	Kirurgia		entrepresentzako
A. Galvany	Kirurgia		seguruentzako. etab.
A. Telleria	Dietetika-Elikadura		Txekeo, araketak


Nafarroa etorbidea, 25-2 - BEASAIN - Tel: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93 ORDIZIA

Autowag, s.a.



Golf berria!

☎ 943 88 82 54 / 62 / 66

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

TOLOSALDEKO ETA GOIERRIKO 48 HERRIK OSATZEN DUTE MANKOMUNITATEA

Tolosako Hiltegi Mankomunatua Euskal Labela duen haragia bultzatu nahian

Gero eta kanpoko haragi gehiago sartzen ari dela ikusirik, bertako haragia, Euskal Labela duen haragia, bultzatzeko ahaleginetan ari da Tolosako Hiltegi Mankomunatua. Horretarako diru-laguntzak ematen dizkie harakinei eta baserritarrei, beti ere txekorra Tolosako hiltegi hiltzeko baldintzarekin. Andoaindik Zegamara bitarteko 48 herrik osatzen dute Tolosako Hiltegi Mankomunatua.

Garai batean herri gehienetan zeuden ganadua hiltzeko hiltegiak. Baserrian ere asko hiltzen ziren. Baina legedi aldaketa etorri eta zentralizazioaren bidetik jo zen. Goierriri dagokionean, hiltegi bakarra dago, Tolosakoa. Hiltegi horren inguruan Tolosako Hiltegi Mankomunatua sortu zen 1985. urte inguruan eta Tolosaldeko eta Goierriko 50 bat herrik osatzen dute mankomunitatea.

Incarosa enpresak du azpikontrataturik Tolosako hiltegia 1995. urteaz geroz-



tik. Sanitateko arloko baldintza guztiak betetzeko inbertsio handiak egin behar izan zituzten. Gaur egun, Europako homologazioa dauka hiltegiak.

Momentu kaxkarra

Haragiaren sektorea ez dago momenturik onenean eta iazko datuen arabera produktzioak behera egin zuen zertxobait. Euskal Labeldun okelak ere behera egin zuen. Patxi Plazaola Mankomunitateko kideak adierazi digunez, kanpotik haragi asko sartzea da horren

arrazoia, ez haragi gutxiago kontsumitzen dela. Arazo horretatik abiatuta, Tolosako Hiltegia Mankomunitateak Euskal Labela duen haragia, eta aldi berean Tolosako hiltegia bultzatu nahi ditu. Horretarako diru-laguntzak ematen dizkie Labeldun txekorrak Tolosako hiltegi hiltzen dituzten harakin eta baserritarrei.

Diru-laguntzak harakinei eta baserritarrei

Harakinei duela 2 urte hasi zitzairen Mankomunitatea

diru-laguntzak ematen. Gaur egun, txekorra Tolosako hiltzea, hozkailuan edukitzea eta harategiraino eramatea 43,73 pezeta kostatzen bazaio kiloko harakinari (hil eta gero pisatzen da), Mankomunitateak kiloko 5 pezeta ematen dizkio harakinari laguntza bezala, txekorrak Labeldun txartela lortzen badu, noski.

Aurtendik hasita, baserritarri berari ere diru-laguntza emango zaio Labeldun txekorra Tolosako hiltegi hiltzeagatik. Mankomunitatearen ekimenez, 1.250 pezeta emango zaizkio buruko baserritarri. Labelaren barruko arauak betetzeko urtean buru bakoitzeko 1.250 pezeta ordaindu behar ditu baserritarriak.

Jaiotzetik harategirainoko kontrola

Hori bai, Labela lortzeko hil eta gero azterketa bereziak egingo zaizkio txekorrari. Baldintzak betez gero Label txartela emango zaio, baina gainerakoei ez eta diru-laguntza Labela lortzen dutenei bakarrik emango zaie.

Jaiotzetik harategiraino bitarteko kontrola izaten dute Labeldun txekorrak.

Labeldun txekorra Tolosako hiltegi hiltzeagatik, buruko 1.250 pezetako diru-laguntza emango dio baserritarri Tolosako Hiltegi Mankomunatuak

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA



LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

Baserriko instalakuntzek sanitateko baldintzak betetzen dituzten ikusi eta elikagai aldeko azterketak egiten dira hilero. Behin hiltegiara eramane eta hilda gero, beste zenbait azterketa ere egiten zaie. Guztiek ez dute Label txartela lortzen. Etiketa berdea izaten da Labela lortu dutenaren adierazgarri.

1998. urtean 2.037.765 kilo haragi atera zen Tolosako hiltegitik eta kopuru horren % 12,28a, 250.253 kilok eramane zuten Euskal Labelaren etiketa. 1997an 22.297,5 kilo gehiago izan ziren.

Kontzientziazioa

Iazko urtean beherakada txiki bat izan zuen Labelaren haragiak. Gutxiago produzitu zen. Hori bai, behi eroen auzia izan zenean, Euskal Labela zuten haragiaren salmentan mantendu egin zen, eta bestea jaitxi. Patxi Plazaolak adierazi digunez, harakinak ikusi egin behar du kontsumitzaileak eskatu eta estimatu egiten duela Labelaren okela. Orduan hasiko omen zaie harakinari Labeldun haragi gehiago eskatzen. Bertako haragiaren kontuarekin az-



1998ko datu orokorrak

Abereak	buruak	kiloak
Behi-idiak:	7.425	2.037.765
Zerriak:	1.680	144.734
Zerrikumeak:	3.661	18.610
Zaldi-behorrak:	160	31.069
Esneko arkumeak:	19.914	141.272
Larreko arkumeak:	387	5.288
Ardi-ahuntzak:	4.027	70.671

pijoko ugari izaten omen da Mankomunitatekoek salatu dutenez.

Tolosako hiltegia

Tolosako hiltegiak kalitateari ematen dio garrantziarik handiena, hiltegia txikia izanik handiagoen aurrean

bestela ezin duelako konpetitu. Alfonso Simonet gerenteak esan digunez, Tolosako hiltegian hiltzen den ganaduaren kalitatea nahiko ona da beste batzuekin alderatuz. Hiltegia erabiltzen dutenak gero eta gehiago omen dira.

Labeldun haragia

1997	272.550 kilo
1998	250.253 kilo

Harakinek 1998an

saldutako labeldun buruak

Olano (Beasain)	83
Zubeldia (Beasain)	78
Munduate (Ordizia)	63
J.M. Deba (Beasain)	54
Peio (Beasain)	36
Goiko Erosle (Segura)	31
Armendariz (Beasain)	31
Ezeiza (Ordizia)	30
Kanpos (Ormaiztegui)	29
Lasa (Ordizia)	27
Joxe (Beasain)	25
Erauskin (Ataun)	14
Luis Mari (Idiazabal)	9
Saltsamendi (Beasain)	3

Edozein abelburu hiltzen dute bertan. Astelehenetan abelgorriak eta zaldiak hiltzen dituzte; asteartetan abelgorriak, zaldiak eta ardiak; asteazkenetan ardiak eta txerriak; ostegunetan abelgorriak, zaldiak, ardiak eta txerriak; eta ostiralean abelgorriak eta ardiak.

Bezeroak nahi adina denboran izaten du haragia hiltegiako hozkailuetan eta haragia harategiraino eramatea hiltegiako banaketa zerbitzuaren ardura izaten da.

IBAI-ONDO

Altzariak neurritan


Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea


ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43

Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreto, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 943 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN

UDAL ORDEZKARIEN BILTZARREKO MAHAI IRAUNKORREKO KIDEA

Jon Jauregi: "Herri honetan gauzak asko aurreratu daitezke abertzaleon batasunarekin"

Otsailaren 6an Euskal Herriko Udal Ordezkarien Biltzarra sortu zen Iruñan alderdi abertzaleen ekimenez. 10 laguneko lanerako mahai iraunkorra ere izendatu zuten, tartean Beasaingo alkatea, Jon Jauregi (EAJ), izango da. Alderdi politiko ezberdinetako ordezkariak daude mahai horretan eta lanerako ildoak zehaztea izango dute lehenengo eginbeharra. Jon Jauregik azaldu dizkigu xehetasunak.



- Nondik sortu da Euskal Herriko Udal Ordezkarien Biltzarra sortzeko ideia?

- Duela urtebete inguru elkarriketak hasi ziren HB eta EAJren artean, nahiko kritikatuak izan zirenak. Horrek lagunduta etorri zen Lizarrako akordioa eta gero irailaren 18an ETak egindako sueten iragarpena. Bake prozesua bide onetik joateko, EAJk ekimen batzuk hasi ditu. Alderdi politiko guztietatik esan izan da biolentziarik gabe edozertaz hitz egin zitekeela, guk alderdi bezala subiranotasuna eta lurraldetasuna beti defenditu izan dugu, eta ikusi dugu oso momentu egokia dela horrelako iniziatibak aurrera eramateko. Horren inguruan ETaren su-etena aztertu ondoren planteatu zen Udal Ordezkarien Biltzarra sortzea.

- Zein helburu du?

- Onartutako dokumentuan 5 puntu azaltzen dira, baina nagusiki, munduan zehar Euskal Herria elkarte natural, kultural eta linguistikoa dela onartzen bada, elkarte politiko batean bihurtzeko bidea jorratzea da helburu nagusia. Horietako elementu garrantzitsu bat da, egituraketa politikoa eta lurraldetasunaren erreferentzi bihurtzea. Horretarako sortu da Udal Ordezkarien Biltzarra. Izan ere, momentu honetan Euskal Herria osatzen duten lurralde guztietan erakunde komun bakarra udalak dira eta udal ordezkariok daukagun esperientzia beharrezkoa da bide hori jorratzeko. Bide horretan beharrezkoa da lurraldetasuna azpimarratzen duten elementuak lantzea eta zentzu horretan planteatzen da Euskal Herria ikuspegi horretatik zein egoeratan dagoen aztertzeko diagnostiko bat egitea eta horren arabera planteatzen da proposamen homogeen eta unitarioak egitea indarrean dauden erakundeei proposamenak bidaliz. Azken finean, lanerako foro bat da.

- Garbi esan izan duzue Biltzar hau ez datorrela indarrean dauden erakundeak ordezkatzera.

- Garbi dagoena da abertzaleoi gustatuko litzaigukela beste egituraketa politiko bat edukitzea. Bada, kigu baita ere herrialde bakoitzak bere nortasuna edo izaera daukala eta hori kontutan izanik, zentzu horretan ere azterketa bat egin nahi

da. Gerora begira gustatuko litzaiguke egituraketa politiko horren ondorioz horri dagozkion erakundeak sortzea.

- Alderdi abertzaleen batasun hau hurrengo legeintzaldian nabaritutako al da?

- Saiatu behar gara biolentziak ez baldintzatzea eguneroko lan politikoa. Hori da helburu nagusienetako bat. Egoera normalizatu batean nik uste komenigarria dela abertzaleok guztion gainetik amankomunean dauzkagun helburuak gauzatzea, eguneroko lanetik kanpo. Eraikuntza nazionalaren lan horretan amankomunak diren elementu garrantzitsuak bilatu behar dira, eta horretan bat egin behar dugu. Beste gauza bat da eguneroko lanean ezberdintasunak izatea. Garbi dago EHk daukan eredu sozial eta ekonomikotik oso urruti dagoela EAJ eta hori normala da. Baina garrantzitsua da Euskal Herriaren eraikuntza nazional horretan denok batera joatea. Horrek herrietan harremanak erraztuko ditu.

- Talde abertzaleen arteko

harreman hau herri mailan gauzatzen ari al da?

- Lizarra-Garaziko ituna sinatu zenetik eta batez ere ETak su-etena iragarri zuenetik aurrera, harreman pertsonalak asko hobetu dira eta elkarlana egiteko gogoia ikusten da. Antolakuntza guztietan harreman pertsonalak dira askotan oztopo eta orain badirudi egoera asko normalizatu dela. Planteatzen ari da Lizarrako ituna herrietara ekartzea, zein elkarlan egin dezakegun ikusteko.

- Abertzaleen arteko dinamika berri hau zerk sortu du? Zer aldatu da?

- Posizioak asko aldatu dira alde guztietan eta ETak alderdi politikoei eman die hitza eta iniziatiba. ETak gainera esaten du biolentziaren irtenbidea hemen dagoela eta ez beste inon. Bake prozesuaren irtenbidea prozesuan bertan dago. Dinamika berriak sortu behar dira herriari erakusteko herri honetan gauzak asko aurreratu daitezkeela abertzaleon batasunarekin. Marko horretan kokatu behar da Biltzar hau eta horrek erraztuko du biolentziaren desagertzea.

- Biltzarra eratzeke Iruñako bilerara jendea erabat ilusionaturik joan omen zen. Espainolistek berriz, kritika zorrotzak egin dituzte.

- Egoera honetan ETak su-etena iragarri zuenetik eszenario berri bat sortu da herri honetan eta politikaren garaia iritsi da. Madrilgo alderdiak jokoz kanpo daude eta ez dakite egoera berri honi erantzuten eta beldurra diete herrian sor daitezkeen dina-

mika demokratiko berriei. Horren aurrean sortzen den edozein iniziatibaren aurrean giro nahasia sortu nahi izaten dute, mezu beldurgarriak bidaliz. Horren helburua da gaiari ez aurre egitea. Hor kokatu behar da nire ustez Biltzarra ospatu aurretik sortutako giroa komunikabideetan eta PSOeko buruzagiek egindako adierazpenak. Zuzenbidezko estatua puskatu egingo dela, konstituzioaren aurkakoa dela... esaten zuten. Eta egia da hainbat herritarren artean beldurra edo kezka sortu dutela.

- Zenbait jende erasoago al zegoen heriotzekin?

- Erosoago zeudela esatea arriskutsua da baina nik esango nuke, gogo-aldartea dela eta buruan eragin dezakeen pentsakera bat izan daitekeela. Epaitzeko gai ez naiz baina garbi dago biolentziazko egoera batean bere ekimen politikoak garbiago zituztela eta sakonean herri honek bizi duen arazo politikoari uko egiteko argudioa erraza zela. Orain iritsi da demokrazian eta askatasunean eztabaidatzeko momentua eta ez diote horri aurre egiten. Horregatik biolentziaren desagerpena definitiboa beharrezkoa dugu.

- Biltzar honek abertzale eta ez abertzaleen arteko zatiketa areagotuko duela esan du zenbaitek.

- Zatiketa ekarriko duela ari dira esaten. Baina gizartea plurala dela esaten da beti eta pluralak zera esan nahi du: gizarte batean arazoei aurre egiteko ikuspuntu ezberdinak defendatu daitezkeela. Plurala izan behar duela esaten denean, koherenteki eskatzen da onartzea ikuspuntu ezberdinak daudela. Ekimen hau abertzaleen arteko ekimena izan da

baina galdera da ea herri honetan abertzaleen arteko harremanak egon daitezkeen eta abertzaleok ea proiektu berezi bat eskaini diezaiokgun herriari. Beste gauza bat izango litzateke inposaketa eta inposaketarik ez dagoen momentutik, eta beti esaten da proiektu hau herritarren borondatean oinarrituko dela, atxekipena bilatuko duela eta herrialde ezberdinen nortasuna errespetatuko duela, eta horrek esan nahi du erabat demokratikoa izango dela eta ez duela hausturarik planteatzen. Egiten dena da, herritarrei, agente sozialei, alderdi politikoei eta indarrean dauden erakundeei, eztabaidarako proposamen demokratikoak zabaldu. Beraz, hori hain garbia izanik, hausturaren arriskua planteatzen dutenek, berez, beraien horrela izatea nahi dute, beldurra sortzeagatik. Beldur diete herri honen arazo politikoei erantzutea.

- Momentu historiko batean al gaude?

- Nik uste baietz. Biltzarrean planteatzen den helburua betetzen bada, garai berri bat datorrela garbi dago. Guk alderdian beti esan izan dugu, nahiz eta azkenengo helburuetan neurri batean ETak defenditzen duenarekin ados egon, oso zaila dela hori defenditzea, beste batzuk hiltzen ari baitira horren izenean. Eszenatoki normalizatu berri hori etortzen baldin bada, nik uste garai berria etorriko zaigula.

- Etorkizunari begira itxaropentsu zaude beraz.

- Dudarik gabe. Fidelek esan zuen, herri hau biolentziarik gabe, geldiezin zela. Guretzat egoera berri honek arrisku handiak hartarazten dizkigu, baina herri honek merezi du.



Aitor Garmendia
Ordiziako HBko
zinegotzia

Euskal Herriak eraikitza nazionalaren bidean urrats oso garrantzitsua eman du Euskal Herriko Udal Ordezkarien Batzarren sorrerarekin. Euskal Herriaren historia modernoan lehen aldiz, Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko biztanleok, Euskal Herriko hiritartzat ordezkatuko gaituen instituzio

amankomuna jarri dugu martxan. Ikusi besterik ez dago, indarra eta zatiketaren bidez, herri honen askatasuna ukatzen duten estatu espainiar eta frantsesari egin dien mina. Lurraldetasuna eta Subirautza oinarritzat harturik, hitzetatik ekintzetara jauzi egiteko erabaki politikoa hartu dugu. Inoren baimenik gabe sortu berri dugun instituzio hau, Euskal Herriak nazio gisa dituen beharrian eta lehentasunak konpartitzeko gune ezin hobea da, Euskal Herria gisa sentitu eta jarduteko aukera jorratzeko esparru beharrezkoa hain zuzen ere. Nazioartean, gure herriaren nortasuna aldarrikatu eta eraikuntzan pausuak emanaz erakunde iraunkorra izateko asmoarekin sortu da. Atzerazineko urratsa suposatzen du.



Josi Insausti
Beasaigo EAko
zinegotzia

Udalek, bai jarrera eraikitzaile eta integratzaile batetik, eta baita ere bere borondate eta autonomiari zor zaion errespetutik, elkarrizketa, eztabaida, partaidetza, eta elkarlanerako guneak moldatzeko orduan elementu eraginkorrak izatera iritsi behar dute; holaxe ulertzen dugu geuk Euskal

Herriko Udal Ordezkarien Batzarra.

Jakina den bezala, Udalak herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izateaz gain, Euskal Herriko lurralde guztietako erakunde instituzional amankomunak dira. Eta horregatik une honetan izugarriko garrantzia du gure herritarrengan eragina duten arazo garrantzitsuenen irtenbidean parte hartzeak, edozein eratako biolentziarako bukatu ahal izateko egoerari irtenbidea emango dioten oinarriak ezarri.

Beti ere, Euskal Herriko biztanleen askatasunezko erabaki eta partaidetza oinarritutako jardunbide dinamiko eta demokratiko bat bezala ulertuz.

BEASAIN

Manuel Diaz 'Navarro': "Talde honi denbora eman behar zaio"

Aurreko asteburuan Beasain futbol taldeak 1-0 galdu zuen Barakaldon. Orain sailkapenaren 14. postuan dago, jaitsiera postuetatik hiru puntura eta hamaikagarrenetik puntu bakarrera. Manuel Diaz 'Navarro' entrena-tzailearen ustez bigarren itzuliari begira itxaropen-tsu egon daitezke zale-tuak.



-Zer balorazio egiten du-zu lehen itzuliaz?

-Bi zati egon dira. Hasieran ona eta itxaropentsua, parti-du eta emaitza garrantzitsue-kin. Taldea ondo zegoen, Kopan itxura eta maila ona eman genuen. Baina gero emaitzak gurekin bat ez zeto-zen dinamika batean sartu gi-nen. Aukerak bai, baina go-lak ez ziren iristen. Sailkape-nean arduratzeko moduko postuetan kokatu ginen, eta tentsio horrekin ezin da ondo jokatu.

-Eta zergatik bigarren zati hori?

-Errege Kopan egotea eta bi lehiaketetara begira egotea Ligan ordaindu genuen. Gai-nera, jokalaria dextente izan genituen lesionatuta. Beni-dormen aurka hemen jokatu genuen partiduan jubenileta-ko bi gazte deialdian sartu beharra izan nuen, lehen tal-dean 16 ere ez baizeuden jo-katzeko moduan.

-Bigarren itzuliari begira nola dago taldea?

-Lesioen arazoarekin jarrai-tzen dugu. Aurreko astean Gaizka lesionatu zen. Beste hiru ere lasionaturik daude, baina horietako bi entrena-menduekin berriz hasi dira, eta lehenbailehen jokatzeko prest egongo direla espero dut. Hala ere, nik beti hamai-

kak jokatzeko dutela diot, eta hamaika jokalaria egonda parti-duei aurre egin behar zaie. Bigarren zatian taldea lehe-nengoaren amaieran baino hobeto ikusten dut. Ea gola-ren arazo hori gainditzeko du-gun.

-Beraz, Beasain taldearen gabezia orain golarena da.

-Bai, sortutako aukerak apro-betxatzea. Partidu guztietan berdin gertatzen da; gu gara partiduen zama eramaten dugunak, baina beste taldeak gutxiago egin arren gola sar-tzen du. Ondorioz gol bateko abantaila izan arren edozein momentutan gola sartu eta izorratzen gaituzte. Gainera, taldeari ere denbora eman behar zaio, ez baita ahaztu behar aurten 15 bat jokalaria berri daudela lehen taldean.

● Loinatz jaiak

Dagoeneko hiru hilabete baino gutxiago falta da Loinatz jai-arako. Aurten maiatzaren 14tik 23ra bitartean ospatuko dira, eta Udaletik hasi dira jada festak prestatzen. Hilaren 16an 1999ko Loinatz Jaien batzordea bildu zen danborrada, sukaldaritza lehiaketa, moztarokak eta haurren ekitaldiak prestatze-ko. Hurrengo egunean lagun talde eta gazteen ekitaldiak an-tolatzeke azpibatzeordearen bilera egin zen. Jaien egitarauaren azaleko lehiaketaren epea gaur itxi da, eta erabakia apirilaren 14a baino lehen ezagutuko da.

● Zeramika erakusketa

Igande honetan Jabier Merkaderrek Usurbe Antzokiko era-uketa aretoan duen zeramika erakusketa ikusteko azken au-kerak egongo da.

Esperientzia falta zaie egindako jokoari probe-txu gehiago ateratzeko. Jokalari horiek denbora behar dute, ez bakarrik beraien artean jokatzeko, Bigarren B mailara egokitzeko ere bai.

-Nola ikusten duzu aurten Bigarren B maila?

-Arrunta iruditu arren, zaila eta gogorra da. Tal-deen artean ezberdinta-sun asko daude. Jokalari bat-zuk goitik datoz eta hemen bukatzen dute, futbol profe-sionalaren azken mailan. Talde batzuk oso profesiona-lak dira, eta lehen mailan egon diren jokalaria dituzte.

-Beste taldeek dutenetik zer ez du Beasainek?

-Hori da guk egiten dugun galdera. Nik uste inork ez duela gu baino gehiago denik erakutsi. Emaitzak hor dau-de, gutxiatik galtzen dugu eta inork ez digu erraz iraba-zi. Nire ustez beterania gehiago behar dugu. Besteek duten maila badugula eraku-tsi dugu, eta begira bestela Kopan egindakoa. Emaitzak ez ziren zortearen ondorio izan, eta lehen mailako egi-tura duen Logroñ F1es taldea kanporatu genuen.

-Betetzen ari al dira denbo-raldi hasierako helburuak?

-Baietz uste dut. Gure helbu-rua Bigarren B mailan man-tenetzea da, eta meritu asko duela deritzot. Horregatik borrokatu behar da, eta hel-burua beteko dela espero dut. Orain jaitsieratik kanpo gau-de, baina ezin gaitzeko lasai-tu.

-Beasainek gehienera iazkoa al du bere muga?

-Iazkoa izugarria izan zen. Muga zein den ezin da jakin. Iazko taldea bat izateaz gain, jokalaria lagunak ere bazi-ren. Horregatik egin zuen taldeak gora. Hori errepika-tzea zaila da, baina dagoene-ko bi aldiz egin du. Aurtengo taldeak iazkoak baino gehia-go jokatzeko du futboleko, ka-litate gehiago dauka, baina zelaian behar den lasaitasuna falta zaio.

-Eta harrobia nola ikusten duzu?

-Jubeniletan lan ona egiten ari dira, eta jokalaria batzuk bide onean daude. Horiek le-hen mailan jokatzeko mo-duan badaude jokatu dute, baina ez badaude jokalaria bi-la hasi beharko genuke. Ni harrobiaren aldekoa naiz. Gaur egun ditugun jokalaria-ek eskualde mailan piska bat nabarmendutakoak dira.

-Eta zaleak?

-Partiduetara jende gutxi joa-ten da, baina hori ez da he-men bakarrik gertatzen. Loi-nazera joaten den jende ko-purua asko jaitsi da, agian maila honetara ohitu direla-ko. Guk etortzen direnak etortzen jarraitu dezaten es-kertuko dugu, eta gure alde egon daitezela. Guk dena emango dugu.

Jon Ordoñez

ATAUN

Zuhaitz eguna larunbatean

Atrebentzia ez bada, astebu-kaera honetarako plan jator baterako gonbitea luzatu nahi nizueke. Beraz, eta gus-to baduzue...Bihar, otsaila-ren 27an ospatuko den Zuhaitz Egunaren inguruan Udalak zenbait ekitaldi eta ekintza antolatu ditu.

Ostiralean, otsailak 26, gure probintziako zuhaitz eta zuhaixkei buruzko era-kusketa irekiko da. Bertan gure lurraldean aurki ditza-kegun 50 espezie ezagune-nak izango dira ikusgai. Ba-koitzaren enbor zati, hosto eta loreez gain, espezie ba-koitzari buruzko azalpen eta bitxikeriak izango ditugu ikusgai. Aldameneko mapa-txoan beren kokapen zeha-tzaren berri emango zaigu. Baita ere, erakusgai izango dira, jatorriz, kanpokoak di-ren espezieak. Erakusketa goiz eta arratsalde irekiko da, goizeko 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

Egun berean, arratsalde-ko 3etan diaporama izango da ikusgai. Bi ekitaldiak Udaletxeko ganbaran izango dira.

Larunbatean, otsailak 27, Zuhaitz Eguna izaki, Astiga-rragako parkean eta goizeko 9,30etan, zuhaitz landaketa-ri ekingo zaio. Eta bigarren eta azken egunez irekiko da erakusketa Udaletxeko gan-baran, aurreko eguneko or-dutegi berean. Horrela emango zaio bukaera aur-tengo Zuhaitz Eguna.

Iganderako deialdia Ataungo Kirol Elkarteko Mendi sailak luzatua da. Igandean, otsailak 28, Lei-zadin buzoia jartzeko asmoa du aurreko urteetan, beste gailur batzuetan egin izan den legez. Ibilbidea Urkulla-ga-Iguñ A4eta-Aizkerri-Lei-zebeltz-Leizadi izango da eta irteera goizeko 8,30etan San Martingo plazatik.

Beraz badakizue, animatu eta ez itzazue geure bazte-rrak ezagutzeko aukera hauek galdu!

V. Ataun aztergai beka

Bosgarren urtez ireki berri du Udalak Ataun Aztergai Bekarako deialdia. Ataun aztergaitzat harturik, herria arlo desberdinetan aztertzen duten ikerlanak aurkeztu



Inauteriei agur!

Beste behin ere, inauteri giroan ginela gogorarazi ziguten Joxe Miel Barandiaran eskolako ikasle eta irakasleek. Eki-taldi ederra eskaini ziguten ostiral arratsalde! Denetarik ze-goien hau, pailazo, indio, Tartalo, lamia, ehiztari, apaiz, epaile eta eguraldi hotzak uzurtu gabe dutxatzeko prest ze-goienik ere bai! Eta arratsaldeari bukaera emateko txokolate bero-beroa. Bapo!

ahal izango dira: historiko-ak, etnologikoak, soziologi-koak, pertsonaiak... Lanaren proiektua aurkezte-ko epea 1999.eko maiatzaren 8an amaituko da. Beka

200.000 pezetakoa da. Oinarriei buruzko xehetasu-nak zein informazio gehiago jaso nahi izanez gero, udale-txera zuzendu zaitezke.

Agurtzane Bikuña

AMEBI



Sagardotegia

Egutegietako bi lagunentzat afaria zozketatu
dugu. Zenbaki saritua: 983

**Otsailaren 27ko gaua
trikitilariekin alaitua izango da**

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

GOIERRITARRA



943 88 96 12

Argazkiaren honen edizioa laguntziaz:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa
fundación*

ORDIZIA

Herrian obrak nagusi

Izan ere, zoruak direla, etxebizitzak direla, batzuk eraiki eta besteak bota, herri guztian zehar obrak dira nagusi. Argazkian ikus daitekeen moduan, Garagartza Plazako eraikina amaitzeaz dago. Hainbeste lanen ondoren, oztopo guztiak gainditu (horma erori, urbideak apurtu, solairua erori...) eta itxura onean geratzen ari da 'Plazuela' inguru hori.

Eraikin horren ondoren, Ordizia kalean ere beste etxebizitza bat erabarrituta geratu da jada, lan handienak eginak daude, nahiz eta errepedea zuloz beteta ageri den oraindik. Elizari erantsita zeuden komunak ere bota egin dituzte orain dela gutxi. 'Apellaniz' inguruan ere, horko eraikina bota eta makinak lanean ari dira. Hau, etorkizun labur batean inguru horretan egingo den urbanizazio berriaren hastapena besterik ez da.

Tren geltokian ere hasiak dira aparkalekuak egiteko obrak. Aurreko ale batean azaldu genizuen bezala, 60 kotxerentzat kabida izango duen aparkalekua izango da berau eta Renferi erositako lur eremuan egongo da. Eta guzti hau gutxi balitz, herriko errepide nagusienetan brea botatzen ari da Udala eta egun gutxi barru hasiko dira San Pedro kaleko zoruak altxatzen, aurretik Goitia, Goen eta Legazpi kaleetan egin zen antzera, zoru berri-tuko baita.

Alboka txapeldun

XV. Eskualdeko Futbito Txapelketako irabazleak Lazkao Alboka Tabernako mutilak izan dira aurtengoan. Finalean Ordiziako Titin taldea izan zuten arerio eta nor-



gehiagoka estu baten ondoren 5-4ko emaitzaz nagusitu ziren lazkaotar gazteak. Antolatzaileak gustora geratu dira txapelketan zehar gertatutakoarekin eta ziur datoren urtean ere beste edizio bat antolatzekotan direla.

Finala jokatu aurretik 3. eta 4. postuak erabaki ziren. Neurketa honetan Alegiko Juanxo Taberna eta Urbitarte Sagardotegia aritu ziren.

Alegikoak nagusitu ziren penaltietan. Arauzko denbora bosnako emaitzarekin amaitu zen.

Futbola Anexoan

XX. Lagunarteko Futbol Txapelketan ere jokatu dira jada lehen partiduak. Azkenik 18 izan dira izena eman duten herriko taldeak eta Bustunmira eta Vicuña Sport antolatzaileek bi multzotan banatu dituzte taldeok. 'A' multzoan Morapios, Matxain, Orlegi, Estamos de paso, Usumbilla, Lacalde 'b', Irrintzi, Sylum eta Vicuña Sport arituko dira. 'B' multzoan, berriz, Tximista, Badago, Peña Azotea, Txola, Ferrocarril Oeste, Urbitarte, Harrike, Wiskas eta Bustun-

mira. Bigarren fasera multzo banako lehen laurak igaroko dira. Norgehiagokak larunbat arratsalde eta igande goizetan jokatu dira, beti ere talde federatuek jokatu beharrik ez dutenean.

Emakumearen eguneko ekintzak

Martxoaren 8a emakumeen nazioarteko eguna dela eta, hainbat ekintza antolatu dituzte Kimetz elkarteok. Martxoaren lehen filme emanaldia izango da arratsaldean jubilatuenen. Martxoaren 5ean, berriz, oinezko ibilbidea egingo dute emakume jubilatuek antolatuta arratsaldeko 3etatik aurrera (Oianguren - Lazkaomendi - Lazkao - Ordizia). Emakumearen egunean, astelehenean, filme emanaldia Barrenan arratsaldeko 3,30etan eta ondoren hitzaldia jubilatuenen Tomasa Zabaletaren eskutik. Asteartean ere izango da zer ikusia, Ordiziako Antzerki Taldeak hainbat lan aurkeztuko baitituzte Barrenan arratsaldeko 7etatik aurrera. Asteazkenean ere hitzaldia izango da Barrenan M.Luz Estebanen eskutik. Ekitaldiekin amaitzeko afaria izango da martxoaren 12an.

Lourvier's Story

Antzerki garairen barruan gaur iluntzean Lourvier's kataluniar talde ospetsuaren antzeslana ikusteko aukera izango da. Talde hau, telebistan hainbat lan egin ondoren, antzerkira itzuli da berriro ere. Oraingoan "Lourvier's Story" lana aurkeztuko dute, esan bezala otsailaren 26an, iluntzeko 8,30etatik aurrera Herri Antzokian. Emankizuna gazteleraz izango da.

Aitor Calvillo



Zegamar- rak nagusi Argi Berriko musean

Jose Ramon Urbizu eta Jose Miguel Agirre zegamarrek osatutako bikote muslaria izan zen Argi Berri

Elkarteak antolatutako XXII. Mus Txapelketa Azkarreko irabazlea. 92 bikotek eman zuten izena eta azkenik, aipatu zegamarrek izan zirela 150.000 pta.k eskuratu zituztenak. Finalean Patxi Arraioz eta Agustin Goizueta leitzarrak hartu zituzten mendeen. Hirugarrenak Ketxus Sanz eta Alejo Garcia ordiziarrek izan ziren eta laugarrenak Jesus Goñi eta Antonio Carrion donostiarrak. Ikus daitekeen bezala leku askotatik etortzen dira muslariak hain sari preziatuarekin geratu asmoz.

Museko egun berean antxuma eta arkumeen zozketak izan ziren eta zenbaki sarituak honakoak: arkumeen kasuan, 1.349, 2.316, 5.714 eta 2.260 eta antxumeen kasuan, 2.688, 0.064, 0.464 eta 4.205. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie era batera edo bestera txapelketa hau posible egiten duten laguntzaile guztiei. Argazkian ikus daiteke txapeldunen poza zenbaterainokoa izan zen, Joserra Jaka Argi Berriko presidenteak txapelak burugaineratu ondoren.

ZEGAMA

209 etxebizitza huts

Zegamako Gogoeta Estrategikoa herriko etxebizitzaren egoera aztertzen ari da. Gaur egun herrian egiten ari diren etxebizitzak eta aurrera begira egin daitekeenaz kanpo, herrian hutsik dauden kopurua ere aztertu da.

1996. urtean jasotako datuak erreferentziatzat harturik, herrian 209 bizitza kontatzen ziren huts bezala. Hutsak bezala izendatzerakoan, bertan inor eroldaturik edo

inskribaturik ez zegoela adierazten delarik. Hau dela eta, kontatutako zenbait, maiztasunez edo noizbehinka beteta egotea posible da. Bestalde, hondamen egoeran geratuta ere oraindik zutik irausten duten etxeak ere hauen artean sartzen dira.

Taulan nabarmentzen den bezala, bizitzak hiru taldetan sailkatu dira: pisuak, etxeak eta baserriak. Hauetan jabetza pribatu zein publikoak

sartzen direnak. Datu hauek kontutan hartuta, hauetariko zenbait etxe alokatu edo saltzeko aukeran ere norbaitek pentsatuta izango du beharbada. Honen berri jakin eta datu base informatibo bat egitea ere interesgarri ikusi da, jende bat interesaturik galdezka ere ibiltzen baita. Udaletxean honen berri eman dezazuen eskatzen da.

San Bartolomeko obrak

San Bartolome auzoan hirigintza obrak hasi dira aste honetan. Obra hauek aprobeztatzuz gasa ere bertatik hasiko dira sartzen. Esan Udalak 50 milioiko obrak bere gain hartu dituela zaharkitutako auzo hau egokitua izan dadin.

Eduarne Albizu

	Pisuak	Etxeak	Baserriak	Guztira
Aitamarren	2	0	0	2
Ald. Eder	2	0	0	2
Amiñalde	0	0	4	4
Andraitz	5	0	0	5
Anttialde	0	0	2	2
Arrietalde	0	0	6	6
Asemendial.	0	0	5	5
Barrenalde	0	0	6	6
Buztinkale	8	1	0	9
Dintialde	0	0	5	5
Elizalde	7	1	0	8
Goialde	0	0	9	9
Gorospealde	0	0	8	8
Gosategialde	0	0	8	8
H. Aseginol.	3	1	0	4
Ikaltzalde	0	0	4	4
Irutxetalde	0	0	7	7
Juan Telleria	9	5	0	15
Olaberri	11	3	2	16
Olanalde	0	0	16	16
Olaran	7	0	0	7
Ondarralde	2	0	5	7
Otzaurte	2	2	0	4
S. Bartolome	10	0	0	10
S. Martin	7	0	0	7
S. Barbara	11	0	0	11
Txarape	11	0	0	11
Zatizalde	0	0	8	8
Zulalde	0	0	8	8
Zupurruti	3	1	0	4
Guztira	100	15	94	209

Bertso-afaria Tartalon, martxoaren 6an

Kultur Etxeak 'Elkarteak Bertsogintzan' kanpainarekin bat etorritik, bigarren aldiz antolatu du bertso-afaria Zegaman. Martxoaren 6an izango da, Tartalo elkartearen. I. Zubeldia, U. Egañak eta M. Aranburu bertsolariak arituko dira kantuan. Aferia 1.600 pezeta kostatuko da. Menua: arrain zopa, arku-me gixatua eta sagar-tarta. Udaletxean eman beharko da ize-na martxoaren 3a aurretik. Telefonoa: 943 801351.

Esan, Goierri, Tolosaldea eta Legazpi-Urretxu-Zumarragako bertso-eskolekin lankidetzan, aurreko beste urteetan ez bezala, herriko elkartearen artean bertso-afari hau burutzeko zuten interesaz galdetu dela. Herriko hiru elkarteek, Tartalo, Ameztin eta Kasinoak, baiezkota eman zuten, bidezkoena zozketa egitea zela erabaki zen. Aurtengoan Tartalon egitea egokitu da, datorren urtean Kasinon eta 2001. urtean Ameztin. Kultur Etxearen proposamena ordena hau mantentzea da bertso-afari hauek dirauten bitartean, beti ere elkarteek hala nahi badute.

Bertso-saio hauek duela 5 urte hasi ziren, eskualdeko bertso-eskolekin bultzaturik. Hauen helburua bertsolari gazteak bertsotan aritzeko giroa sortzea da. Aurtengo kanpainan, eskualdeko 13 elkarte desberdinetan burutuko dira horrelako afariak.

Erpeletako abesbatzaren kontzertua

Datorren otsailaren 27an, iluntzeko 7,45etan, kontzertua eskainiko digu Erpeletako abesbatzak San Martin elizan. Kontzertu hau, herriko Orkatz abesbatza eta Erpeletakoaren artean egin duten trukaketa saioen emaitza da. Hau dela eta, aste-bukaera honetan, herriko familia ezberdinetan izango ditugu abesbatza honetako partaideak.



XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak

Ateak

Zorruak

Armairuak

BEASAIN



GABIRIA

Badira lau hilabete eliza zaharberritzeko lanei ekin zietela eta orain arte teiltatuak konpontzen eta berritzen ari-tu badira ere, ekin diete eliza barruko lanei. Kanpoko aldeari dagokionez, teiltatu nagusia erabat berrituta da-goa eta eliza atariko teiltatua ari dira orain eta beste aste bat edo beharko dute erabat berritzen.

Eliza barruko lanak direla eta, hemendik aurrera Uda-letxeko gela batean emango da meza. Dena den, ez da lu-zaroko izango, izan ere, eli-za bera baino lehen ondoko saloia berri-tu nahi dute eta Aste Santu ingururako buka-tzea espero denez, Aste San-tutik aurrera saloi horretan emango dira mezak.

Eliza barrutik konpontze-ak luze samar joko du, eta tartean jaunartzeak izango

Hasi dira eliza barrutik konpontzen

ditugunez eliza lanak erabat bukatu arte atzeratzea eraba-ki da. Beraz, irailean edo izango dira jaunartzeak.

Telefonikako 'Orrialde Horiak' Ostatun

Ostatuko arduradunek jaki-narazi digutenez, Telefoni-kako 'Orrialde Horiak' dei-turiko liburuxka berriak Os-tatun daude jadanik eta es-ku-ratu nahi dutenek bertara jo behar dute liburuxka za-harra eramanez. Asteazken arratsaldeetan izan ezik bes-te edozein egunetan irekita izango da eta komeni da le-henbailehen agertzea, gehie-nez ere astebete inguru izan-go baitituzte.

1. Rally Sprint auto lasterketa igandean

Igande honetan izango da ai-

patutako lasterketa hori. Ibilbidea sei kilometro eta erdikoa da: Korta jatetxetik Motxorrorra arte eta bakoit-zak bi buelta oso eman be-harko ditu. Lasterketako le-henengo partaidea arratsal-deko 3etan irtengo da eta ondoren beste guztiak atera-ko dira minutu bateko tartea utziz. Guztira berrogeiren bat partaide izango dira eta Estatuko lurralde ezberdine-takoak.

Antolatzailea Lagun Ar-tea elkarte da eta Gabiriatik Motxorrorra arteko errepidea arratsaldeko 2.30etan itxiko dute.

Sari ugari izango dira partaideentzat eta lasterketa irabazten duenak 90.000 pe-zeta eta trofeoa eskuratuko ditu. Lehen sari hau Gabiria-ko Udalak jarri du.



Inauteriak Herri Eskolan

Inauteriak direla eta joan den ostiralean zortzi eskola-ko haurrak mozturorik hainbat saio antzestu zituz-ten eskola aurrean inauteri giroan murgilduz beraien eta gurasoon gozamenerako.

Gabino Murua

OLABERRIA

Aurten bigarren aldiz, mar-txoarekin batera dator Kul-tur astea. 8tik 14ra bitartean izango da eta ekitaldi ugari antolatu du Udalak. Jarraian duzue egitaraua oso-osorik:

Martxoak 8, astelehena:

14:45ean: Amaia Vazque-zen eskutik, 'Komunikazioa familia barruan' gaiari bu-ruzko hitzaldia, Bikario-etxean.

17:30ean: Javier Fernande-zen 'Goierri: bere jendea eta bizitza' argazki erakusketa-ren inaugurazioa Bikario-etxean. Erakusketaren ordu-tegia: astelehenetik ostirale-ra 17:30etik 20:30era eta la-runbat eta igandean 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Martxoak 9, asteartea:

21:00etan: Mila Aierbe ataundarraren eskutik, 'Pla-neten eragina horoskopoa' gaiari buruzko azalpenak, Bikario-etxean.

Martxoak 10, asteazkena:

18:30ean: Arrate Leunda ipuin kontalariaren saioa haurrentzat, Udal Liburute-gian.

21:00etan: Anparo Urkola-rekin 'Etxeko ohizko erre-medioak: informazioa, belar motak, aholku praktiko-ak...', Bikario-etxean.

Martxoak 11, osteguna:

21:00etan: Mahaingurua Bikario-etxean: 'ONGak, bolondresen lana'. Taldeen aurkezpena, eskaintzen di-tuzten zerbitzuak, beha-

rrak... aztertuko dira. Parte hartuko duten elkarteak: Gi-zalde, Nagusilan, Medicos sin Fronteras, Gipuzkoako Hies Kontrako Elkar-te Hiri-tarra.

Martxoak 12, ostirala:

17:30ean: Herri-eskolako haurrek 'Hontz beldurtia' antzerkia antzeztuko dute, Bikario-etxean.

18:30ean: Zuhaitz eguna.

19:30ean: Talo festa Arku-pe elkartearen taloak txisto-rrarekin, gaztarekin, txoko-latetarekin, esnearekin... Ta-loko 100 pezeta kobratuko da.

Jarraian: Mikel Telleria abeslariaren saioa.

Martxoak 13, larunbata:

III. 'Joxe Kerejeta' Memo-

riala (XI. Goierriko Bola txapelketa).

11:30ean: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek 'Base-rrian' ikuskizuna eskainiko dute Udal pilotalekuan.

18:00etan: Hitzaldia eta bi-deo emanaldia Bikario-etxe-an Alba elkartearekin. Boli-viako artisautzaren erakus-keta txiki bat jarriko da.

21:00etan: Zikiro afaria eta bertso afaria. Txartelak Po-blado tabernan, Arrieta jate-txean, Ostatu tabernan eta udaletxean eros daitezke.

Martxoak 14, igandea:

9:00etan: 'Enirio-Aralarre-ra' irteera.

11:30ean: Elkarleen arteko I. Gastronomi lehiaketa. Ba-kailao prestaketa.

IDIAZABAL

Idiazabal eta gazta aztergai



Idiazabalek eta gaztak duten lotura kontutan hartuta, herrian artzantzak eta gaztagintzak izandako historia eta bilakaera aztertzeke beka eratu dute Udalak eta Gazta batzordeak. Taldeka edo banaka, azterlanaren nondik-norakoak bilduko dituen txostena aurkeztu behar da lehendabizi Udaletxean apirila bukatu aurretik. Ondoren epaimahai batek proiektu guztiak aztertuiko ditu eta beraien ustez egokiena denari emango zaio beka. Aurkeztutako proiektuek epaimahiak ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez badituzte beka ez zaio inori emango. Bekaren inguruko beste xehetasunak, diru kopurua, lanaren luzera... Udalak onartutakoan emango dira argitaratu.

Idiazabalen Euskal Herriko gazta txapelketa jokatzen zenetik gaztaren alde lanean ari da Gazta batzordea.

Beka deialdiaz gain, batzorde hori maiatzean ospatuko den bigarren Gazta egunerako prestaketak egiten ari da.

Festetako balantzea

Kultura batzordeak eta festa komisioak aurtengo Sanblasen balantzea egin dute. Orohar festak ondo joan dira antolatzaileen esanetan. Arrakastatsu jo dituzte pilota partiduak, triala, sokatira txapelketako kanporaketa eta txistulari alardea, "bildu zuten jende kopuruagatik, ongi antolatuta zeudelako eta kalitate handiko emanekizunak izan zirelako", Xabier Imaz Kultura zinegotziaren esanetan. Saio horietan erabili den azpiegitura teknikoak, megafonia besteak beste kalitate onekoa izan dela uste dute antolatzaileek.

2000. urteko Sanblasetarako hobetu beharrekoak: garbitasuna, festetarako ka-

lean komunak jarritz; plazan jendea geratu dadin neurriak hartu, plaza estali... eta futbito txapelketa eta txirrindulari lasterketa berreskuratzeko antolatzaileak bilatzea.

HBren idatzia

Idiazabalgo Herri Batasunak Udal hauteskundetarako hautagiak aurkezteko Euskal Herritarrok taldea eratzen ari da herrian. HBk herrian zabalduko idatzi batean dio EHren borondatea "herria eta udala parte-hartzaileagoa izatea da" horretarako "proiektu abertzale eta ezkertzaile honetan lana egiteko prest dagoen edonorek ekarpena jasotzeko prest gaude".

EH-k Legebiltzarrerako hauteskundeetan herrian jasotako babesare ere eskertzen du ohar horretan Herri Batasunak.

Hitano ikastaroa

Aita Iparragirre Herri Eskolak Maizpide Euskaltegiarekin elkarlanean Hitano ikastaroa antolatu du. 10 lagunekoa taldea osatu nahi da. Beraiek erabakitako ordu eta egunetan izango da ikastaroa, guztira 12 ordu osatu arte. Pertsonako lau mila pezeta ordaindu beharko da. Informazio gehiago nahi duenak Herri Eskolara jo dezake.

Korrika

Martxoaren 24an iritsiko da Korrika Idiazabala. Korrikari harrera egin eta haren alde ekitaldiak antolatzeke Idiazabalgo Korrika batzordea lanean ari da. Herri Eskola, Eskolako guraso elkarteak, Udaleko Kultura batzordea, Idiazabalgo EA, HB, PNV, Jarrai eta Zirikari Irratiko ordezkariak osatu dute batzordea.

Martxoaren bigarren asteburuan Korrikaren inguruko ekitaldiak antolatzeke asmoa du batzordeak. Oraindik erabat zehaztu gabe dauden arren, herriko artisten jaialdia, mus txapelketa azkarra eta Zirikari Irratiaren saio berezia izango dira martxoaren 13an. Martxoaren 14an berriz haurrentzako euskarazko zine emanaldia eta herritarrentzat afari-merienda antzekoa antolatzeke asmoa dute.

Galdutako giltzak

Galdutako bi giltza sorta daude jasota Udaletxean. Bata I'A4austiko rotunda inguruan aurkitutako giltza sorta da. Bigarrena herrian bertan norbaitek galdutakoa, Che Guevararen irudia daraman giltzatakoa du.

Xabier Urteaga



☎ 943 88 55 00 ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarkeko, pintxoak
☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN



GOIERRITARRA



943 88 96 12

SEGURA

Finalak Atsedenen

Gaur, otsailak 26, jokatu dira jubilatuen elkarteko karta jokuen finalak. Puntuatua, 18:30ean, Luixa Aldanondo eta Milagros Alustiza, Joxe Ormazabal eta Arturo Gonzalezen aurka. 19:00etan hasita, tutean, Extanix Agirre eta Satur Arizkorreta, Joxe Ormazabal eta Arturo Gonzalezen kontra. Musean, Ximon Garaialde eta Eulio Albisu, Patxi Imaz eta Julian Telleriaren aurka.

Atletismoko txapeldunak



Ordiziako Txindoki atletismo taldean kadeteen mailan ari den **Iker Agirrezabal** herritarra Gipuzkoako txapeldun geratu zen duela 2 aste pista estaliko 60 metro-tan, estatu mailako txapelketarako marka lortuz (7.34). Otsailaren 21ean, Euskadiko txapelketan, 3. egin zuen 60 metro-tan (7.43) eta bigarren 300 metro-tan (37.87). Asteburu honetan Donostiako belodromoan izango den estatu mailako txapelketan parte hartuko du 60 eta 300 metro-tan.

Maite Telleria Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun geratu zen pista estaliko pisu jaurtiketan pasa den ur-

1983 urtea zen Korrikaren 3. edizioa Seguratik pasatzen zena. Gaua sartua zela, hainbat herritarrek Luiziko gainean itxoin zioten zegamarrek zekarten euskararen lekukoari. Antortxa artean eta txandaka, garai hartan herrian euskalduntzen eta alfabetatzen ari ziren ikasleek plazaraino ekarri zuten testigua eta Joseba Intxausti idazle eta euskaltzaleari pasa, honek Guardiko gaineraino eramanda idiazabaldarrei eman ziezaien.

1999ko Korrikaren 11. edizioa ere gure herritik pasako da. Oraingo honetan

Korrika 16 urte geroago



Luiziko gainean, Jone Albisuk hartu zion 3. Korrikako lekukoa testigueramale zegamarrari.

martxoaren 24an. Azken orduko aldaketarik ez bada, arratsaldeko 3ak aldera

Idiazabaldik sartuta, herria zeharkatu eta Mutiloarantz jarraituko du.

Kilometro banaketak, Kilometro erosleak, lekuko eramaleak, kuestazioa, materiala, ekintza osagarriak... antolatze eta aurkezpen orokorra egiteko, pasa den asteartean egin zen lehen bilera kultur etxean. Bertara herriko alderdi, talde eta erakunde ezberdinak deitu zituen Goierriko AEKk. Korrika aurrera eramateko sortu den batzordeak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu Korrikaren antolaketan eta korrikan bertan ere parte har dezaten.

tarrilean. Martxoan hasita, Gipuzkoako eta Euskadiko pista irekiko txapelketetan parte hartuko du.

Tenisean txapeldun

Eider Lardizabal, Alaitz Imaz, Naiara Oiarbide, Ane Arrieta eta Maitane Urkiolak osatutako alebiren taldea, kirol eskolarreko Goierriko txapeldun geratu da 5 partidutatik 5ak irabazita. Orain Gipuzkoako txapelketan hasiko dira.

Txirrindularitza

Martxoaren lehen asteburuan hasiko den denboraldian Arkaitz Sodupe eta Jon Garziandia herritarrek arituko dira. Arkaitz, 23 urtez azpikoetan Bruesa taldean eta Jon 2. urteko jubeniletan Iberdrolan.

Pelota

Zutik torneoko asteburuko emaitzak: Olanok eta Galarragak 22 eta 8 irabazi zieten zumarragarrei. Castellanos eta Hombrek 22 eta 8 herri berekoei. Alfarok eta

Etxeberriak 22 eta 5 Azpeitiarrei. Asteburu honetan kanpoan izango dituzte partidatuak.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonak:** Segura 6-1 Soraluze. **Jubenilak:** Lehengokoak 1-2 Segura. **Kadeteak:** Ordizia 6-0 Aizkorri. **Infantilak:** Lehengokoak 3-1 Aizkorri.

Asteburuan etxean: **Zapatuan** jubenilak, Segura-Oiartzun, 16:00etan. **Jaien** kadeteak, Aizkorri-Urnieta, 11:30ean. **Infantilak,** Aizkorri-Santo Tomas, 16:00etan.

Bola

Otsailaren 20an Goierriko txapelketako Zeraingo saioan 4. egin zuen Antonio Agirrek. Otsailaren 21ean Gipuzkoakoan, 4. egin zuen Jokin Izagirrek Olaberrian.

Labur-labur

● Martxoaren 8tik 14ra burutuko den **Iparra-Hegoaren** informazioa 25. orrialdean.

● Udalak proposatuta, **Seguraren historia** jasoko duen liburua idatziko du Joseba Intxaustik.

● Segurako preso taldeak antolatuta egin zen **hausnarketa egunean**, herri mailan zerbait egin asmoz, herriko alderdiekin biltzea erabaki zen.

Joseba Telleria



Benita Ariztimuño inauteri asteartean moztortzen den betikoetakoa da. Aurtengoan telefono mugikorrekin ateratzen.

LAZKAO

Sanprointzio jaiak inguratzen ari diren honetan, ari da nabarmentzen pixkanaka mugimendua. Festak prestatzeko bilerak egiten ari dira aspaldi antzean eta beste era bateko ekimenak ere martxan dira. Hala nola, '1999ko Sanprointzio jaietako egitarauaren azala' aukeratzeko lehiaketa martxan jarri dute Udaletxean.

Esan beharrik ez dago lehiaketa honetan edonork hartu dezakela parte inolako mugarik gabe. Lanak ere, edozein era eta koloretakoak izan daitezke, hau da, collagea, pintura edo beste edozein teknikatakoak, baina hori bai, 45x60 cm-tako formatoan edo proportzionalen.

Lehiaketa honetara aurkeztutako lan guztiek, 1999ko Sanprointzio jaiak izan beharko dute gaitzat, eta nola ez aurrez argitaratu gabeak izan beharko dira.

Lan guztiak, martxoaren 23rako Lazkaoko Udaletxean egon beharko dute. Aurkezterakoan, gainera, kontutan hartu beharko dute partehartzaileek, lanetan egilea nor den adierazi dezakeen ezer ezin dela azaldu. Egilearen datuak eta N.A.N. aren fotokopia kartazal batean sartuta bidali beharko dira.

Epaimahaiak martxoaren 31 baino lehenago emango du bere erabakia, eta saria,

Lehiaketak, ikastaroak eta beste



Talo ikastaroa

Lazkaoko Talogileak eta Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartek antolatuta talo ikastaroa egingo da martxoaren 2, 3 eta 4an arratsaldeko 7etatik 8etara. Gerriko Elkartearen egingo da ikastaroa 1.000 pezeta soilen truke.

Bertan parte hartu nahi duenak, otsailaren 26a baino lehenago eman beharko du izena Gerriko Liburudendan.

Martxoaren 5ean gainera, ikastaroari amaiera emateko, talo afaria egingo da Gerriko Elkartearen bertan gaueko 9etan.

Ondorengo hau izango da menua: lehenik, taloa hirugiharrekin, bigarrenik, taloa txistorrarekin, gero taloa txokolatearekin eta postre bezala taloa eta esnea. Afari bikain honetara joan nahi duenak, Gerriko Liburudendan edo Tabernan eman beharko du izena martxoaren 3a baino azkarrago. Afaria 1.300 pezetan eskainiko zaizue.

Argazkia iazko ikastarokoa da. Lazkaomendiko elkartearen fin ari dira, ikasle eta irakasleak.

eman gabe gelditu badaiteke ere, 30.000 pezetakoa izango da.

Eranskailu lehiaketa

Gerriko eta Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkarteen eskutik eranskailu edo pegatina lehiaketa antolatu

da aurtengoan. Eranskailu hauek Sanprointziotarako ateratzeko asmoa dago.

Nahi izanez gero, esaldia bakarrik aurkeztu daiteke, eta nahi izanez gero, marrazkia ere bakarrik aurkeztu daiteke, baina hori bai, azken hauek txuri beltzean

egon beharko dute, kolorerik gabe. Gaia librea izango da, ez du derrigor euskarari buruzkoa izan beharrik, baina bai euskaraz.

Lanak Gerriko Liburudendan aurkeztu beharko dira martxoaren 18a baino lehen, eta honako hauek izango dira sariak, esaldi onenarentzat 7.000 pezeta, marrazki onenarentzat beste 7000 pezeta, eta partaide guztien artean 5 bideozinta ere zozketatuko dira. Jasotako lan guztiak antolatzaileen esku geratuko dira. Sariak, berriz, apirileko kulturaldian banatuko dira.

Emakumeen eguna

Emakumeen eguna badatorrela aprobetxatuz, Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartek, tailer batzuk prestatu ditu gauza desberdin asko ikasteko.

Tailerrak, martxoaren 6an, larunbata, goizeko 11etatik eguerdiko 1,30etara burutuko dira plazan. Bertan gauza desberdinak ikasteko aukera izango da, hala nola, gurpilak aldatzen, bonbilak aldatzen uraren eta olioaren maila begiratzen, entxufeak aldatzen kableak luzatzen, altzari zaharrak txukuntzen eta abar.

Hauetako ezer ikasi nahi duenak bertan azaltzea nahikoa du, beraz ez galdu aukera paregabe hau.

Urko Irastorza

Pertsona bat behar da Seguran,
ordu batzuetan tabernan lan egiteko.
☎ 943 800 251

ARESO kalea, 7 ☎ 943 88 96 86

Ezkontza erreportaiak
%25eko

DESKONTUAREKIN

LAZKAO
ARGAZKI

ZALDIBIA
Mus txapelketa azkarra

Otsailaren 20ko mus txapelketa azkarreko irabazleak.

Joan zen larunbatean, hilak 20, mus txapelketa azkarra jokatu zen Zubi-Buru elkar-tean. Bertan 88 bikotek har-tu zuten parte, tartean 6 na-far. Finalaurrekoetan bi bi-kote zaldibitar eta beste bi ordiziar izan genituen, eta azkenean txapelak Ordiziara joan ziren.

Bikote txapeldunarentzat 120.000 pta. eta txapela zeu-den eta bigarrenarentzat 60.000 pta. ko dirusaria, bai-na finaleko dirua banatu eta txapelak soilik jokatzeara-baki zuten. Juan Garzia eta Pako Moure ordiziarrek be-raz txapelaz gain 90.000 pta irabazi zituzten, eta Mozo eta Elias zaldibitarrek berriz 90.000 pta.

3. eta 4. postuetarako par-tidarik ez zuten jokatu I'A4igo eta Izaro herritarrek eta Ordiziako Jexux eta Je-ronimok; dirusaria banatzea erabaki zuten. Bikote bako-i-tzak 22.500 etxeratu zituen.

Eskiatzera!

Martxan da aurten ere eskia-tzera joateko irteera! Mar-txoaren 6an, goizeko 5,30etan herriko plazatik atera eta hurrengo egunean itzuliko dira Formigaldik. Irteera hau 14.000 pta kosta-tuko zaie 17 urte bitartekoei; ikasle eta langabetuei 14.000 + ikastaroa (2.700 pta), eta langileei 14.600 +eski alokairua (1.300 pta) + ikastaroa (2.700 pta).

Interesatuak dirua Gipuz-koako Kutxako kontu hone-tan sartu eta ordainagiria Kultur Etxera eraman behar-ko dute. (2101. 0075. 00. 000.2.58057.9). Izen emate-ko epea gaur, ostirala, otsai-lak 26, amaitzen da.

Herri Batzarra

Zaldibiko Herri Batasunak deiturik herri batzarra ospa-tuko da martxoaren 4an, iluntzeko 8etan, Joxepanen. Batzar horretako gai-ordena ondorengoa da: -Jorratzeke


Emakumeen eguna

Martxoaren 8ko emakumeen eguna dela eta Damixelalak prestakuntza lanetan dabil-tza. Egun horretarako egitarauan poteoa izango da 8etan trikitixarekin, ondoren afaria Joxe-panen, eta afalondoan trikitixa, kantaldia eta sorpresa. Afari-rako tikeak Joxepanen izango dira salgai.

Bestalde, Zaldibiko Emakume Taldeak, gainontzeko Gi-puzkoako Emakume Taldeekin batera, martxoaren 7rako deitu duten manifestaldirako gonbitea luzatu nahi die herri-tar guztiei. 'Parte hartzea eskubidea da' lemapean Hondarri-bian egingo den mobilizazio honetan emakumeek ere gizar-tean parte hartzeko eskubidea dutela adierazi nahi diete eus-kal gizarteari, eta, bereziki, Irun eta Hondarribiko hainbat al-derdi politiko, herritar edo oro har eskubideak zapaltzen di-tuztenei.

dauden lan-ildoak. -Euskal Herriko Udalerrien Biltza-rra. -Lizarrar-Garazi hitzar-men nazionala. -EH talde eragilearen osaketa.

Antzerkia

Martxoaren 5ean, ostirala 'Romeo eta Julieta' antzez-lana eskainiko du Ordiziako Antzerki Taldeak, gaueko 10,30etan antzokian. An-tzezlan honekin inguruko antzerki taldeen lanak aur-kezteari hasiera eman nahi zaio, aurrerago Beasain, Ze-gama, e.a.-eko antzerki tal-deen obrak ere eskainiko baitira.

Euskal Presoak
Euskal Herrira !

Gaur, otsailak 26, ostirala Zaldibiko Herri ekimenak deituta, herri-kalejira izango da herrian, ilunabarreko 8etan, Goiztiri txarangare-kin. Ekitaldi honekin preso-en eskubideen defentsan, hemendik aurrera hilaren az-ken ostiralean egingo diren ekitaldi andanari hasiera eman nahi diote.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bataz beste

MANDUBIKO BENTA
jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierri-rako bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

Iparra-Hegoa asten Seguran

Herri berekoak izanik elkar ezagutza txikia izateak bideratu zuen 1996an Iparra-Hegoaren I.go edizioa gauzatzea. Segurako Elorri eta Urruñako Berttoli elkartekoen inizatibaz sortutako urteroko astea elkar ezagutzeko, ulertzeko, osatzeko eta azken batean batzeko asmoarekin antolatuta izan da.

Logotipo berria

Azken 3 urteetan erabili den logotipoak bere egitekoa bete duela eta, aurrekoa bezalaxe Joxe Mari Telleria margolari herritarrak aurrerantzerako diseinatu duen ikur berria estreinatuko da. Ez da, ordea, berrikuntza bakarra.

Jendaurreko margo sariketa

Euskal Herri osoan margolari zuzendua, herrian zehar aritu beharko dute margoketan. Gaia: Segura. Sariak: lehen hirurentzat 50.000, 35.000 eta 20.000 pezeta eta 10.000 pezetako akzesita. Epaimahaikoak: J.M. Telleria, Jesus Jauregi herritarrak eta Jokin Telleria beasaindarrak. Informazio gehiago esku programetan. Lan guztiak egun berean hasita Kultur etxean egongo dira ikusgai astebetetz eta ondoren herriko tabernetan hilabetez.

Zuhaitz-enborren erakusketa

Zuhaitz eta naturarekiko zaletasunak eraginda, inguruko mendietako 50en bat zuhaitz-enbor ezberdin ditu sailkatuak bakoitzaren azalpen nagusiekin Ermasoko Martxeliño Elorzak. Ilberri edo ilbeteetan landatu, kimatu, moztu..., erabilgarritasunari buruzko ezaugarriak, mamia eta azalari buruzkoak, loretzak, fruituak, bitxikeriak, euren eremu naturalak... Erakusketa martxoaren 8an hasita 21era arte egongo da zabalik Zurbano kaleko 12an (Kaxinto Antxermonean). Astebarruan 19:00etatik 20:30era eta zapatu-jaietan 12:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Eskola, euskaltegi eta abarrentzat ordutegi bereziak.

Lixiba jotzea

Iazko azokan antolatuta zen euskal sukaldea eta bertako lixiba jotzearen antzezpena aurten ere ikusi ahal izango da. Garai batean egiten zen modura, arropa tiñan pasa, lixiba-harrian jo eta astasakietan karreatuta ixeriko da.

Artzain tresnen erakusketa

Azoka berean, gaur egun erabilpena galdua duten artzain tresnen erakusketa ere jarriko da. Euren erabilerari buruzko informazioa ere eskainiko delarik.

Euskal boda

Nobedade nagusienetakoa, ordea, euskal ezkontzarena izango da. Oreretako Iraultza dantza taldeko, Iparraldeko eta Segurako hainbat lagunek antzeztuta herriko kaleak zeharkatu ondoren, plazan amaituko da ikuskizuna.


Oharrak

- Ekitaldien gastuei aurre egiteko errifak atera dira. Herriko tabernetan nahiz Elorriko bazkideei eskatuz lor daitezke.
- Futbol partiduan jokatzeko Elorripen eman behar da ize-na.
- Zikero bazkarirako Elorripen jarriko dira txartelak salgai.

Agitaraua

Martxoak 8:

Emakumeen nazioarteko eguna dela eta, Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeen 3 belaunaldiarekin solasaldia. Kultur etxean, 19:30ean.



Martxoak 9:

Euskal selekzioaren inguruko hitzaldi-solasaldia. Bertan ESAITeko kideren bat eta futbolari, txirrindulari eta pelotari profesionalak izango dira. Kultur etxean, 19:30ean.

Martxoak 10:

'Seguraren sorrerako hiri gutuna, Santiago bi-dea eta Juduak Seguran' hitzaldia. Kultur etxean, 19:30ean.

Martxoak 11:

'Ikastolak eta Euskal Herria' hitzaldia. Kultur etxean, 19:30ean.

Martxoak 12:

Haurren eguna: Ziburuko Ikastolako 10-11 urteko haurrak etorriko dira egun pasa. Herria bixitatu eta bazkaldu ondoren jokoak izango dituzte plazan bertako haurrekin. Ondoren txotxongiloak eta Txan magoaren ikuskizuna. Amaitzeko, txokolate jana eta buruhandiak.

19:30ean: Lizarra-Garazi akordioaren aurkezpena Kultur etxean. Partaideak: Richard Irazusta (AB), Arnaldo Otegi (EH) eta Eako ordezkari bat.

Ondoren: Musikaz lagundutako euskal kantu afaria Eloorripen.

Martxoak 13:

10:00etatik 14:00etara: jendaurreko margo sariketa. **11:00etan:** Rugby partidua (jubenilak): Ordizia-Urruñ. Ordiziako Rugby zelaian; **16:00etan:** Futbol partidua: Iparra-Hegoa. Alustiza futbol zelaian. **Iluntzean:** Taloak eta Irulegiko ardoa plazan. Txaranga. **22:30ean:** Musika gaua: Etengabe eta Etxakit herriko plazan.

Martxoak 14:

10:30ean: Kriseilu txistu taldekoekin goiz-eresia. **Goizetik eguerdira arte:** Iturengo joaldunak herriko kaleetan zehar. **11:00etatik 14:00etara:** Iparraldeko eta Hegoaldeko artisau eta nekazal produktuen erakusketa-salmenta. Bertan, lixiba-jotzea antzeztuko da. Artzain tresnen erakusketa. **12:00etan:** Iparra-Hegoa pelota partidua frontoi zaharrean. **13:00etan:** Euskal boda aterako da. **14:00etan:** Gereziandoaren inguruko ekitaldia. **14:30ean:** Zikero jana, frontoi zaharrean. Zikeroak goizetik jarriko dira erretzen San Joan sua egiten den lekuan. Bertan sagardo dastaketa ere izango da. **17:30ean:** Iparra-Hegoa sokatira saioa. **18:00etan:** Mutxikoak dantzak plazan.

Joseba Telleria

OTSAILAREN 28an IZANGO DA 15:00etan KORTA ERRETEGI AURREAN HASITA

Gabiria-Legazpia I. Rally sprint-a

Egun bakarreko lasterketa da rally sprinta. Ibilbidea Gabiriako Korta erretegiaren aurrean hasi eta Legazpiko Motxorro baino 500 bat metro lehenago bukatuko da, GI-3540 errepideko 4,5 Km-tik 11. Km-ra. Gidariak minututik minutura abiatuko dira eta bi joan-etorri egingo dituzte, ordu beteko tartearekin. Euskadiko txapelketarako puntuagarria izango da proba. Azpeitiako Lagun Artea eskuderiak antolatu du Gabiriako gazte talde baten laguntzaz. Talde honetako Unai Kerejeta eta Lontxo Ormazabalekin izan gara rallyaren berri izateko.

Antolakuntza, baimenak lortzea, eta horrelako lan guztiak Lagun Artearen esku daude, herrikoen esku dago kartela prestatu, dirua bildu eta egunean bihurgunetan egotea. Gabiriako autoen zaletasuna zegoela eta gazte batzuk autokrosa antolatzekotan ibili ziren. "Asmoa lehenengo piloto ofizialak ibili eta ondoren herriko gazteak disfrutatzeko aukera izatea zen, baina ez zen ezer gauzatu. Beti horrelako probak ikustera kanpora joan behar izaten dugu eta



gertuen Azpeitira. Motxorroko bidea konpondu zutenez berriro zerbait antolatzeke asmoa piztu zitzaigun. Kortako nagusiak Azpeitiako Lagun Artea eskuderiakoekin hitz egin zuen eta hauek zirkuitua ikusi ondoren baiezkota eman zioten antolatzeari", dio Lontxok.

Lehenengo helburua aurtengoa ondo irtetzea dute. "Orduan, datorren urtean berriz antolatuko dugu". "Zaletasuna beti egon da, baina orain indartzen ari dela dirudi. Bide honetan bertan 1981ean ere antolatu omen zuten lasterketa bat, beraz lehen ere bazen zaletasuna" gehitu du.

Euskal Herriko onenak

Elkarrizketa egiteko unean oraindik izen emate epea zabalik zegoenez kopuru zehatza jakiterik ez badago ere, 40-50 partehartzaile espero dituzte. Rallya denez serie-

ko autoak dira parte hartzaileak, Golfak, Sierrak, Kadettak, AXak... baina rallyrako prestatuta eta kopilotoarekin. "Zenbait jendeak hala uste badu ere, ez da igoera izango, ez da barketa eta kortexe berezirik izango. Euskal Herriko gidariek gain Errioxa eta Santandertik ere etorriko dira", dio Unai. Etorriko diren gidariak Euskal Herri mailako onenak dira eta ibilbideko punturen batean 160 kilometro orduko abiadura hartuko omen dute. Ikuskizuna ziurtatuta dagoela diote antolatzaileek, eta motor munduaren zaletasun handirik ez dutenak ere bertara inguratzea animatu nahi dituzte.

Lasterketa antolatzeak 2 milioi inguruko aurrekontua du. Kartela ateratzeko enpresaz enpresa ibili dira dirua biltzen eta hortik lortuko dute diru kopururik handiena, 1.300.000 pezeta inguru. Beste diru sarrera garrantzi-

tsua egunean bertan sarrerekin lotzea espero dute, sarre-ra 1.000 pezeta kobratuaz. Horretarako eguraldiak laguntzea ezinbestekoa ikusten dute, zaletasun handia izanda ere edozein ez baita 4 ordu eurtan egoten lasterketa bat ikusten.

Segurtasun neurriak

Beasainen gertatu zen istripua ikusita ahal den segurtasun neurri zorrotzenak hartzen saiatu dira. Bihurgune guztietan zintak jarriko dira jendea jarri ez dadin, eta leku arriskutsuenetan antolatzaileak egongo dira. "Hala ere askotan jendeak ez du kasu handirik egiten eta hori da arazoa. Ikusteko toki egokiak ere ez daude gehiegi eta alde horretatik jende-ari errespetu piska bat eskatu behar zaio", diote.

"Herriarrek haseran ez zuten asko sinisten zer ari ginen antolatzen, baina orain asteburuetan hasi dira gidariak zirkuitua ezagutu eta notak hartzera inguratzen eta jendea hasi da konturatzen zer datorren. Jende asko biltzea espero dugu. Legazpi aldetik ez dago autoa aparkatzeko batere arazorik. Gabiri aldetik bai, beheko tailer inguruan ahal ditugunak sartuko ditugu eta gainontzekoek bide bazterrean utzi beharko dute autoa", azaldu dute gabiriarrak.

EGUZKI INFIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

943 88 94 82

BEASAIN

ANGEL IMAZ

PINTURA
eta
PAPERGINTZA

943 18 70 49

Ondramuño etxea IDIAZABAL

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33

BEASAIN



1954eko CAF Lanbide Eskolako ikasle eta irakasleak

Lourdesera egin zuten bidaian, Belok monastegiaren aurrean atera zuten oroigarri argazkia.

Goian, ezkerretik hasita: Bi beneditarrak, Luis Aldasoro, Juan Izagirre, Pedro Villar, Mertxe Fernandez, Jose Sanchez, Aierbe, Paulino Cano, Jose Luis Ibisate, Lorenzo Cadarso, Arrese, Jose Julian Urteaga, Martin Iturrioz, beneditarra, Epaizabal, Juan Barandiaran, Justo Urbina, beneditarra, Jose Luis Estala, ezezaguna, Tiburzio Galparsoro, ezezaguna, Franzisko Maiza, Zirila Larrañaga, ezezaguna, Eustasio Larrañaga, Jose Atorrasagasti eta Maria Teresa Sasianbarrena.

Eserita: Segundo Dorronsoro, bi beneditar eta Don Segundoren arreba.

Makurtuta: Juan Auzmendi, Jose Otxoa, Sebastian Sarriegi, Teodoro Saez de Urabain, Txema Aranburu, Santos Huerta, Agustin Telleria, Santi Cuellar, Lekuona, Jose Mujika, Jesus Rodriguez, Jesus M. Ezkai, Juan A. Galparsoro, Jose Baztarrika, Jose Zubeldia, Benito Amundarain, txoferra, eta irakasleen 5 seme-alabak.

DORRONSORO HORTZ-KLINIKA

'ODONTOLOGIA OROKORRA
ORTODONTZIA OROKORRA:
HAUR ETA HELDUENTZAT

Bideluze plaza, 2 - 1. ☎ 943 16 09 91
BEASAIN

Kale Nagusia, 56 - 1. ☎ 943 18 71 61
IDIAZABAL

ARS DENS

Odontologia klinikoa



GURUTZE GORRIKO OSPITALEKO ODONTOLOGIA SAILA

Matia kalea, 7 DONOSTIA
Tel.: 943 31 16 11 - 943 31 62 13

BEASAINGO HORTZ-KLINIKA

Andra Maria kalea, 7 BEASAIN
Tel.: 943 88 07 83

E-mail: arsdens@arsdens.com
<http://www.arsdens.com>

GAIAK.

Windows 95.
Word 97.
Access 97.
Excel 97.
Kortab. eta Faktur.
Photoshop.
FreeHand.
Corel Draw.
QuarkXpress.
Autocad 14.
Director 6.
3D Max.
Internet.
WEB. orriak.
Nominak.
Mekanografia.
Humeentzako Kurtsoak.
Visual Basic.



ESKOLA LAGUNTZA.

OHO-ESO-LOGSE-BBB-UBI-LH.
BANAKAKO LAGUNTZA.
TALDE TXIKIAK.
ORDUTEGI ZABALA.

UNIBERTSITATE-MAILA.

ENPRESARITZA.
KONTABILITATEA.
NOMINAK.
INGENIARITZA.
KIMIKA.



-Ordutegi malguak.
-Ikasgelak aire girotuarekin.
-Informatikaren irakaskuntzan eskarmentua duten irakasleak.
-Enpresetarako, enpresetan bertan ematen ditugu ikastaroak, horrela, zuek bertatik irten beharrik izan ez dezazuen eta zeuen lanorduen barruan gehien komeni zaizuenean jaso ditzazuen.

INEMek HOMOLOGATUTAKO IKASTEGIA

CHIP'S

INFORMATICA GUTIERI S.L.

C/ Comercial Senpere, 1
20.200 BEASAIN (Gipuzkoa)
943 80 50 37
www.facilnet.es/chips
e-mail: aulachips@facilnet.es



IRUDIA LANTZEN DUGU

LOGOTIPOAK • LIBURUSKAK
SKANER ZERBITZUA • 3D
WEB ORRIAK • KARTELAK
MAKETAZIOA • PUBLIZITATEA



C/ Comercial Senpere, 1
20.200 BEASAIN (Gipuzkoa)
943 80 50 37
www.facilnet.es/chips/acv.htm
e-mail: acv.multimedia@facilnet.es